



Curriculuma

Euskal Eskola Publikoa Gaur Bihar

BIGARREN ZATIA

EUSKAL HERRIRAKO CURRICULUMA: KONTZEPTUA ETA OINARRIA



SARRERA

Euskal gizartea aurrerapauso erraldoiak emanaz ari da aldatzen. Azkeneko mende laurdenean sortutako transformazio ekonomikoak, politikoak eta kulturalak, kontuan hartzeko moduko eragina izan dute. Gure gizartearen dinamismoa hainbat sektoretan eta produkzio eta gizarte eremuetan geratzen da islatuta.

Ekonomiak gure herrian aurrekaririk gabeko aldaketa izan du. Industrian eta lehenengo sektorean oinarritutako garapen modeloaren finkapenetik eta loralditik zerbitzuak nagusitu dira ongizatearen oinarritzko



faktore bezala. Globalizazioaren gorabeherak indar handiarekin sentitu dira gure herrian.

Gizarte mailan egon diren aldaketak ere benetan ikusgarriak izan dira. Estatuko beste erkidegoetatik immigrazioa jasotzen duen herrialdea izatetik, Magrebeko, Latinoamerikako eta Sahara azpiko herrialdeetako immigrazio jendetsuaren helmugetako bat izatera pasatu gara. Eskulanaren premiak eskubide osoko kideak bezala integratzeko premia duten beste herrialde batzuetako langileak hartzera behartzen gaitu. Faktore horrek zenbait egitura sozialean, ekonomikoan, kulturean eta baita hezkuntza-egituran eragin nabarmena dauka.

Diktadura osteko euskal kulturaren bultzada ere etengabekoa izan da. Gizartearen zati batentzat lortutakoa txalogarria izan da; beste sektore batzuentzako, berriz, emaitzak oraindik ez dira nahikoak. Egia dena zera da, euskal kultura eztabaiden xede dela eta hurrengo urteetan ere izango dela, Euskal Herriko herritar guztientzako daukan garrantziagatik eta transzendentziagatik.

Hezkuntzaren ikuspegitik, gure herriak azkenaldian jaiotza-tasaren murriztapenaren efektuak, eskolatze goiztiarraren adierazleen handiagotzea, derrigorrezko hezkuntzaren luzapena, teknologia berrien erronka abordatzea, bigarren hezkuntzako ikastetxeetako bizikidetzaren arazoak, lanbide heziketako bultzada, unibertsitatearekiko tentsioak edo hezkuntzaren kalitatea lortzera eramaten dituzten ekimenak ezagutu ditu. Faktore guzti horiek, zuzenean edo zeharka, hezkuntza sistemaren funtzionamendua baldintzatu dute.

Curriculum-proposamenak berezitasun hauek kontuan izan behar ditu gure herriaren beharretatik eratortzen diren lehentasunei egokitutako eta doitutako erantzun zehatzak emateko. Hurrengo orrialdeetan Euskal



Herrirako Curriculumaren zenbait eremu garrantzitsuren definizioak eta oinarriak zehazten saiatuko gara. Hasiera batean, gure herriko giza eta kultura errealtatearen azaleko diagnosia egiten da.

Gero, curriculumaren oinarritzearen gaiari ekin diogu. Hau da, nola definitzen dugun, zer ezaugarri dituen, zer elementuk osatzen duten eta zer diren euskal gizartearen eta kulturaren funtsezko eremuak. Kontzeptualizazio hau zenbait ohar historiko txikiekin osatzen dugu Euskal Herrian diseinatutako curriculum proposamenen eta lege garrantzitsuenen oihartzunaren inguruan. Gure inguruko herrialdeetan gai honen eboluzioa ezagutzeko asmoz, derrigorrezko hezkuntzan Europako curriculumen berezitasun nagusien laburpena ere egin dugu. Ondoren, bizitzan zeharreko hezkuntzaren inguruko hausnarketa egin dugu. Etengabeko prestakuntza gure erkidegoaren etorkizuneko erronkei aurre egiteko bermatzailerik onena da. Etengabeko prestakuntza arloan europar mailan bultzatutako ekimen batzuk azaltzen ditugu.

Hezkuntza-agenteen garrantzia irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuetan ukaezina da. Familiak, hezitzaileek, ikasleak eta kolektibo sozialak gizabanakoaren sozializazioan berariazko pisu handiena duten erakundeak dira, eta jakina, baita Euskal Herrirako Curriculumaren garapenean ere. Eskola-komunitateko kideen berezitasunen eta hezkuntzari dagozkion erantzukizunen inguruko deskribapen motza egin dugu.

Atal hau hezkuntzaren kalitatearen inguruko hausnarketa batekin eta sinesmenekiko duen loturekin bukatzen dugu. Eskuineko eta ezkerreko ideologiek eta pentsamendu kontserbadoreak eta sozialak bultzatutako kalitatearen adierazleen definizioa askotan ezberdinak dira. Eskola Publikoak gai honetan parte hartu behar du biztanleriaren



gehiengoari mesede egingo dion kalitate nozioa kontzeptualizatuz, alegia, hezkuntza printzipioekin eta planteamenduekin bat etorritz.

1.-BEHARREN DIAGNOSIA: GIZARTE PLURALARENTZAKO CURRICULUMA

Euskal Herria Europan kokatzen den errealitate plurala da. Historiak, kulturak eta sustraiak mendeetan zenbait gertaera historikoen eta sozialen eragina izan duela ematen digute aditzera; baldintza eta gorabehera horien ondorioa da egun ezagutzen dugun herria. Euskal errealitatea modu partzialean eta alde bakarretik ulertzea, osatzen duten elkarten, kolektiboen eta taldeen errealitatea onartu gabe akats handia da. Euskal Herria plurala eta kohesioa duena aldi berean lortzea eta sustatzea herritarren kultura demokratikoaren mende dago.

Hezkuntza aukera asko eta zenbait arazo dituen herrialde baten itxaropena bultzatuko eta sustatuko duen faktoreetako bat izan daiteke eta izan behar da. Gure curriculumak abiapuntu bezala Euskal Herriko gizartearen errealitatea hartu behar du, dimentsio guztiak banan bana kontuan izanik, biltzen dituen sentsibilitateen adierazgarri zehatza izan dadin. Bestela, gure ahaleginek ez dute lortuko nahi dituzten emaitzak.

Gure herria egungo Europako gizartearen errealitatearen lagina da. Euskal herritarrek adierazten dituzten premiak kontinenteko edozein herritarren modukoak edo gutxienez antzekoak dira. Ondorengo lerroetan gai hauetako batzuk eta aldi berean hurrengo urteetan herri honek aurre egin behar dizkion erronka garrantzitsuak zehaztuko ditugu.



XXI. mendeko Euskadiko gizartearen (eta Europakoaren) erronka sozial garrantzitsuenen artean **globalizazioaren fenomeno**a nabarmendu behar dugu duen garrantziagatik eta transzendentziagatik. Mundializazioa egoera kezkarriak sortzen ari da planetako zenbait tokitan. Bizitza modeloak homogeneizatzea, kultura eta hizkuntza minorizatuak desagertzeko arriskua, hegemonia ekonomikoagatik borroka, herri aberatsak herri txiroak arpilatzea, ustelkeria eta errentagarritasun ekonomikoarekiko obsesioa inolako eskrupulu moralik gabe, herritarrak kontsumo-agente moduan hautematea soilik, etab., dirudunenak gero eta aberatsago egitea lortzen duen makro-estrategia honen ondorioetako batzuk dira. Globalizazioa askotan pluraltasunaren, elkartasunaren eta herritarren eta herri txiroenen eskubideen aldeko errespetuaren kontrapuntu bilakatzen da. Euskal Herriko (erkidego aberatsa) instituzioek eta herritarrek jarrera koherentea eta solidarioa hartu behar dute gai honen aurrean.

Informazioaren eta Komunikazioaren teknologiak garrantzi handia daukate mundu globalizatuan. Bizitza sozialean nabarmen eragingo duen sareen sarearen (Internet, intranet sareak...) dimentsio berria sortu da. Hala, *telelanak* kontuan hartzeko moduko garrantzia izango du etorkizuneko ekonomian. Teleproduktzioaz, tele-erosketaz eta telediruz hitz egingo dugu. Etorkizunean, egoera soziala eta laborala nabarmen aldatu daiteke. Egunero fisikoki lanpostura joan ordez langile askok lanaldia etxeetatik garatuko dute. Era berean, emigrazioaren kontzeptua aldatzen ari da, herrialde txiro eta azpigaratuetan bizi diren pertsonak bizitokia aldatu behar izan gabe herrialde aberatsetako multinazionalatan lan egingo baitute. Aukera honek lan merkatuaren globalizazioko bidea emango du, hortik eratortzen diren ondorio guztiekin (soldatukoak, sindikalak, kulturalak, sozialak...). Urrutitik lan egiteko aukerak lan merkatuaren oinarritzko araua hausten du: langilearen bizitokiak ez dauka enpresatik gertu egon beharrik. Hirigune handietan



kontzentratu ordez, profesionalak munduko geografian banatu ahal izango dira. Lan-modu eta bizimodu berriak sustatutako isolamendu kasuak aipagarriak dira. Paradoxikoki, komunikazio eta informazioaren gizartean, harreman pertsonalak, solasaldi lasai eta patxadatsuak oso urriak dira.

Interneten dagoen informazioak bere iturrietako fidagarritasun arazoak ditu gaur egun (gezurrak, zurrurruak...). Sare oso deszentralizatua den heinean, informazio horiek gutxiengo etika eta fidagarritasuna izan ditzaten egiaztatu egin behar izango dira. Aldi berean, agentzia handien informazioaren monopolioaren haustura ere ekarriko du, eta ondorioz, albisteetan zentsura nabarmen murriztuko da.

Nazioarteko jarduera zientifikorako Internetek daukan garrantzia ere gailendu egin behar da. Sare telematikoak sortu direnetik, adituek beraien ikerketak segundo gutxitan bidali ditzakete munduko edozein aldera. Zientzia urrutiko ikerketa modeloaren menpe dago gero eta gehiago. Unibertsitate birtualak Goi Mailako Irakaskuntzaren eremuan sortzen ari den transformazioaren adibideak dira. Laburtuz, sare telematikoen agerpenak ezagutza zientifikoaren produkzio tipologian transformazio sakona dakar berekin, ideien elkar-trukaketa bultzatuz eta datuak eta tresnak partekatuz. Informazioaren autobideak egungo ikerketan ikastetxeen azpiegituraren oinarritzko osagaiak dira. Gure herria trebetasunez egokitu beharko da aldaketa garrantzitsu hauetara.

Demokrazia sakontasunaren gaia ez da garrantzi gutxiagoko erronka. Demokrazia egonkorra bihurtu dela esaten dugu herritarrek ideiak eta praktikak tinko defenditzen dituenean. Balore demokratikoak errotzea belaunaldi batetik bestera balore horien transmisioaren eta finkapenaren menpe dago. Pérez Gómez-ek (1998:96) honakoa adierazten du gai honi buruz: “demokraziak sistema politiko bezala



merezi baldin badu, bizitza estilo batean bilakatzen delako da, alegia, besteen ezberdintasunekin eta eskubideekin errespetu handikoa eta gatazka eta desadostasun saihestezinekin elkarrizketarako irekia izatea...”. Euskal gizarteak askatasunean oinarritutako printzipioak eta baloreak bultzatu eta askatasunaren aurkako praktikak saihestu behar ditu. Eskolak, familiak eta erakunde sozialak hornitutako hezkuntza morala eta hiritarra, gure partaidetza kultura hobetzeko oinarritzko mugarriak dira.

Gizarte-zientzien eta gizartearen demokratizazioaren arrakastak **sexu bien arteko aukera-berdintasunaren** aldeko mugimenduak sustatu dituzte. Generoaren ondorioz sortutako desberdintasunak erauzteko gure gizartean baterako hezkuntzari eman zaion bultzada euskal herritarrentzako erronka bat da. Zenbait jarduera eta ekimen sozialetan (hezkuntza, lana, politika, kultura, aisia, etab.) emakumeak parte-hartzea gure gizarteak egiteke daukan ikasgaia da. Lan egitea beharrezkoa da gure herri eta hirietan egunero gertatzen diren diskriminazio prozesuak eta indarkeria sexista deuseztatzeko. Ordainketa ekonomikoetan berdintasuna, lan-sarreretan baldintzak, kultura eta aisialdiko jardueretan parte-hartzea, ordeztan gaituen klase politikoak funtsean aurre egin eta konpondu behar dituen arazoetako batzuk dira.

Baina **desberdintasunak** adierazpen dramatiko eta danteskoak ere izaten ditu. Gure planetan biztanleriaren %20k (abertsek) inbertsioaren %80, aurrezpenaren %81, maileguen %95, munduko komertzioaren %81 eta diru-sarreraren %83 kontrolatzen du. Munduko sektore pribilegiatu honek (gu, alegia), munduko energiaren %70, metalen %75, egurraren %85 eta elikagaien %60 kontsumitzen du. Munduan ezagutzaren kontzentrazioa aztertzen badugu (aberastasuna pilotzeko faktore gakoa), laurogeiko hamarkadan herrialde abertsek ikerketan 171 dolar inbertitzen zituzten bitartean biztanleko, gaur egun



360 dolar inguru gastatzen dituztela ikus dezakegu. Kopurua herri azpigaratuagoetan txikitu egiten da (Afrikako herrialdeak...): pertsonako 4 dolar gastatzen dituzte. Zenbaki horiek Latin Amerikan, adibidez, 1980an pertsona bakoitzeko 10 dolar gastatzenetik laurogeita hamarreko hamarkadan 6 dolar gastatzera pasatu ziren (gutxitu egin da). Lurraren eremu hau bere historiako krisialdi gogorrenetakoa jasaten ari da. Ehun hegoamerikarretik berrogei 2 dolar baino gutxiagorekin bizi da egunero. 500 milioi latinoamerikarretik 200 milioi pobreak dira. Zer jarrera hartzen ditu gure herriak egoera hauen aurrean?

Datu hauen irmotasunaren aurrean, euskal herritarrok gure bizitzeko erarekin ere autokritikoak izan behar gara. Mundu aberatsean edozein motatako baliabideen kontsumoa neurritz kanpoko da. Zarrastelkeria honek zuzenean gure inguruari eta bereziki ekologiarri eragiten dio. **Ingurumen Hezkuntza** hiritarrek naturarekiko duten jarrera aldatzeko eta egungo eta etorkizuneko beharrak asebetetzeko garapen modeloa sustatzeko estrategia indartsuenetakoa da. Sektoreen arteko estrategia eta ekimenen bitartez Ingurumen Hezkuntza sustatzea, garapen iraunkorraren esparruan komunitatea sentsibilizatzea, laguntza tekniko eta instituzionala ematea, gobernuko erakundeekin (tokikoak, probintzialak,...) eta gobernuz kanpoko erakundeekin lankidetzeta programen bitartez naturaren zaintza sustatzea, ekologiarekin lotutako ekimenei dagozkien proiektuen eta informazioen elkar trukaketa bultzatzea, etab. eremu horretan gainditu beharreko erronketako batzuk dira. Euskal Herriak ingurumena zaintzeko bideratutako ekimenak nabarmen indartu behar ditu (hondakinak birziklatzea, energia neurritz kanpo kontsumitzea...).

Hurrengo hamarkadetako gizartearen eboluzioaren alderdi garrantzitsuenetako bat **zahartzea izango da**. Fenomeno hau jaiotze-tasaren eta heriotza-tasaren (medikuntzako aurrerapenak erraztua)



gutxitze nabarmenen ondorioz sortu da. Datorren urteetan pertsona nagusien taldearen handiagotze nabarmena izango dugu, batez ere, mendebalde aldean, bizitza maila handiagoa baita. NBEk egindako biztanleria ikerketek (1993, Pérez, L. 1997:101) 1950ean mundu osoko pertsona nagusien kopurua 128 milioikoa zela adierazten dute. 2000 hasieran 425 milioi zeuden, 2010ean 500 bat milioi izango dira eta azkenik 2025ean 825 milioi izango direla kalkulatzen da.

Biztanleriaren hazkunde honek, txarto deituriko “hirugarren adina”k ez dio herrialde guztiei eta kontinente guztien berdin eragiten. Estatu garatuenak (mendebaldekoak), demografia zahartze prozesu garrantzitsuagoa daukatenak dira, eta, arrazoizkoa den moduan, hori izan da eztabaida sozial eta politiko biziagoa sortu den tokia.

Fenomeno honek 65 urte baino gehiagoko biztanleriaren gehiegizko balorazioa izango du ondorio; gainera, kontsumo ahalmen handiaz gain, zaindu beharreko berariazko premiak izango ditu (aisialdia, hezkuntza, denbora librea...) eta baita kontuan hartzeko moduko hauteskunde ahalmena. Horri guztiari biztanleria aktiboaren murrizpena gehitu behar zaio. Biztanleriaren gutxiengo kolektibo batek sektore bat mantendu beharko du (gehiengoa duena eta lan-mailan ez aktiboa). Horrek guztiak estatuen aurrekontuen eremuan adostasunik ezak sor ditzake, baliabideen kopuru garrantzitsu bat pentsioak ordaintzeko erabili behar izango baitute. Zenbait herrialdeetan, gainera, finantziario arazoak egongo dira herritarren gizarte-prestazioei aurre egiteko. Euskal Herria biztanleriaren zahartzearen eragin handiena duten herrialdeetako bat da.

Hezkuntza arloan adierazle baikorrak dituen herria gara. Haur Hezkuntzako lehen zikloko (0-3 urte) eskolaratze maila %29'5ekoa da (Estatuko altuena). Bigarren zikloko eskolaratzea (3-6 urte) erabatekoa da (%100). Euskadi eta Nafarroako egokitasun portzentaiak (inoiz



ikasmailarik errepikatu ez duten ikasleak) Lehen eta Bigarren Hezkuntzetan Estatuko lehenengoetan daude. Estatuan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (%80'8 eta %85'4) eta Batxilergoko (%85'5 eta %85'6, hurrenez hurren) arrakasta mailarik altuenak dauzkagu. 20 eta 24 urte bitarteko gazteen formakuntza maila Estatuko altuena da eta europar batz bestekoaren gainetik dago (MEC, 2005). Euskal Hezkuntza sektore osoaren lan ona eta sistematikoa azpimarragarria da.

Emaitza itxaropentsu hauek erronka berriei ekiteko akuilu izan behar dute: eskolaratze goiztiarra, teknologia berriak, baloreen heziketa, elkarbizitza ikastetxeetan, osasunerako heziketa, aniztasunaren arreta, eleaniztasuna, lanbide hezkuntza sustatzea, ikerketa goi mailako ikasketetan, kalitatea eta ekitatearen lorpena, aukera berdinak edukitzea, eta abar, euskal hezkuntza kidegoak eta bere agintariek zaindu behar dituzten erronkak dira.

Baztertze arriskuan dagoen biztanleria ezin dugu ahaztu. Gizarte bakoitzak, zirkunstantzia eta egoera ekonomikoen, politikoen eta sozialen arabera, marjinazioaren ebaluazioan eta diagnosian desadostasunak izan ditzake, eta, hortaz, aurrez aurreko eta aurrezaintzako zenbait neurri burutzen ditu. Euskal Herriko babesik gabeko sektoreek zenbait ezaugarri eta berezitasun ezberdin adierazten dituzte.

Baztertze fenomenoak modu krudelagoan hautematen dira **adingabekoek** jasaten dituztenean (umeak eta nerabeak). Haurtzaroko familia-babesgabeziak, tratu txarren arazoak, maitasunik gabeko haurtzaroak, gurasoen identifikaziorik ezak, familia aurrekari positiborik ez izateak, etab., adingabekoaren etorkizuna markatzen dute. Familia lotura problematikoek, inguru zailak, harreman sozial gatazkatsuak, jarraitzeko modeloen gabezia (imitatzeko), etab. marjinazioa sortzen duten faktoreetako batzuk dira. Gabezia pertsonal larriak eta familia eta



afektibitate egoera konplexua duten adingabeak oso zaugarriak dira. Ikuspuntu soziologikotik, tratu txarren jatorria gabezia sozio-kulturaletan eta ekonomikoetan, egoera estresagarrietan, familia desegituraketan, eta abarretan daude. Gizarte mailan, familiako kideen arteko harremanak gurasoek erakusten duten ereduak markatzen dute askotan. Tratu txarren jatorria, sarritan, ezkontideen garapen emozional eskasean, autoestimu txikian, isolamendu sozialean, sentimendu depresibo kronikoetan, apatian, emozioak gutxi kontrolatzean, indarkeriazko adierazpenetan, eta abarrean dago.

Drogen kontsumoa nerabezaroan gehien eragiten duen beste arazoetako bat da. Substantzi horien gehiegizko erabilera alderdi immunologiakoekin (osasuna), lanik ezarekin, lotura naturalik ez izatearekin, gaixotasuna klandestinitatean bizitzearekin, frustrazioekin, depresioekin, bere buruaz beste egiteko saiakerekin, etorkizunarekiko itxaropenik ezarekin, itxaropen murriztekin, eta abarrekin lotzen da sarritan. Gaixotasuna, mendekotasuna, bizitza-heriotza harremana, integrazio soziala, aurreiritziak eta estigmak, etab. drogen mendekotasuna jasaten dutenen arteko ohiko gaiak bilakatzen dira. Gure herria toxikomanien arloan parte-hartze politiken garapenean aitzindaria da, baina prebentzioaren eremuan bide luzea geratzen da oraindik burutzeko.

la seihun milioi pertsonak dauka **minusbaliotasunen** bat munduan. la %80 garatu gabeko herrialdeetan bizi da, eta, ondorioz, ez dauka zerbitzu sozialetarako sarbiderik. Eguneroko borroka oinarrizko beharrak konpontzea da. Euskal Herrian gutxi gorabehera minusbaliotasun arinen edo zorrotzen bat duen 150.000 eta 200.000 bitarteko pertsona daude. Nazio Batuek *Minusbaliotasuna duten pertsonentzat aukera-berdintasunaren inguruko arau uniformeak* deituriko minusbaliotasunarekin lotutako araudia garatu dute (Martínez, J.,



2004:229); helburua sektore honetako pertsona guztiek eskubide eta betebeharrak berdinez izatea da. Munduko herrialde gehienetan (baita gurean ere) oztopo eta erresistentzia asko daude minusbaliotasuna duten pertsonen eskubideez erabat gozatzeko eta zereginak oztoporik eta erresistentziarik gabe garatu ahal izateko. Eremu honetan gure herriak urrats egokiak eman behar ditu minusbaliatuen egoera hobetzeko.

Immigrazioa, berez, ez da molde-gabezia bat. Immigranteak sarritan bizitzeko modua aldatu egin behar du eta zenbait balore eta ohitura oso ezberdinetara ohitu behar da. Gizartea, sarritan, immigrantearen aurkakoa da, indarkeria adierazpenik gabe marjinalizatzen eta baztertzen du, krudeltasun dosi handiekin. Egoera hauetan ikusten duguna zera da, gizarte batek sarritan “bigarren mailako” pertsonen modura hautematen dituen atzerritarrek “hartzen” dituela. Egoera hau gogorragoa bilakatzen da laboralki kolektibo hori ustiatzen den heinean, bertoko herritarrek egin nahi ez dituen lanak eskainiz eta trukean duintasunez bizitzeko ematen ez duen soldata ordainduz.

Immigrazioaren gaia ezin du Estatu batek bakarrik konpondu. Txirotasuna murriztuko eta herrien arteko elkar garapena sustatuko duen politika globalari ekin behar zaio. Jatorrizko herrialdean aberastasuna sortzea beharrezkoa da emigratu behar ez dezaten, bizitza itxaropenak erakargarriak eta etorkizuna ilusioz beterikoa izan daitezen. Mugako hesia zeharkatu eta harrera herrian sartu eta gero, immigranteak marjinazioa, lanean ustiapena, apartheid soziala, erabakiak hartzean eta komunitatean parte-hartzean bazterketa, ohitura, balore, jarrera eta pentsamolde aldaketak moduko horma ikusezinei aurre egin behar die. Jatorrizko herritik joatea erabaki gogorra da, baina behin erabakia hartu eta aurre egin eta gero, etsaitasunezko inguru ulergaitz eta baztertzailerari ere aurre egin behar zaio. Sozializazioa, integrazio soziala eta gure



kulturaren ezagutza immigranteen aldetik euskal gizartearen beste erronketako bat da.

Langabezia maila ekonomikoan, sozialean, laborean, politikoan, kulturean eta pertsonalean ondorio anitz dituen egoera zaila da. Lanik gabe geratzea pertsonen autoestimurako kolpe gogorra jasotzea da. Pertsona horiek nabaritzen dute beren rola herritar, pertsona, eskubideak dituen subjektu, eta abarren modura galtzen doala. Hortaz, egoera honek eragin psikologiko ukaezinak sortzen ditu. Arazo honek konponbide zaila dauka faktore ekonomiko eta sozial anitzen eta gobernuen eta Administrazioan erabaki handi eta garrantzitsuen menpe baitago. Egoera ekonomikoak arazo honen bilakaera markatzen du nabarmen. XX. mendeko azken hamarkadako eta XXI. mendeko hasierako egoera larriak kolektibo asko autoenplegua eta ezkutuko ekonomia sustatzeko ekimenak hartzera bultzatu ditu.

Langabeziaren ondorio psikologikoak anitzak eta era askotakoak dira. Buruko gaitzak, hala nola, tentsioa, gehiegizko presioa, egoerak sortutako estresa, autoestimu galera, pertsona moduan balio gutxi duenaren sentimendua eta kontzentrazio arazoak, egoera zail hauei loturiko eta berauetatik eratorritako sintometako batzuk dira. Langabeziak gehiegizko erantzukizuna (familia mantendu behar izatea), errealitatetik alde egiteko arazoak, alkoholismoa eta hitz batez, pertsonaren buruko osasunaren narriadura ere sortzen du. Beste herrialdeetan bezala, langabezia eta giza bazterketa lotuta doaz.

Zirkunstantzia eta egoera horiek guztiak mende hasierako euskal gizartean daukate eragina modu batean edo bestean. Gai hauek abordatzeko beharrezkoa da ahulenekin politika ekonomiko, sozial, kultural (eta baita hezkuntza mailakoak ere) egokiak eta eskuzabalak izatea. Azken hamarkadako zerbitzu publikoen privatizazio joera gogorra



izanagatik ere, gizarte kohesionatu batek gizartearen klase behartsuenen jatorrizko gabeziak konpentsatuko dituen politikak behar ditu. Modu horretara bakarrik sortuko dugu herri justuagoa sektore sozial ezberdinekin eta solidarioagoa gizateriaren zenbait herriekin.

2.-CURRICULUM KONTZEPTUA

Eskolak ez ditu bakarrik eduki teknikoak, zientifikoak eta akademikoak irakatsi behar. Ez ditu bakarrik herritarrak esparru ekonomikoan eta laboralean sartzeko prestatu behar. Euskal Herrirako curriculumak gainera hezkuntza-komunitatearen (guraso, irakasle, ikasle, kolektibo...) konpromisoa sustatu behar du gure herriaren giza, kultura, eta bizikidetzaren alderdiak zein alderdi etikoak eta moralak optimizatuz.

Aurkezten dugun curriculum proposamenak euskal gizartearen alderdi guztien hobekuntzarekin eta aurrerakuntzarekin zuzenean lotutako ondorioak ditu. Euskal Herriko ondare historiko, sozial eta kulturalaren garapenak agente sozial guztien lankidetzaren behar du, bazterketarik gabe, eskola bera barne.

Gure herrirako curriculum bat egin aurretik kontzeptu hau zer den eta zein ezaugarri bereizten duen zehaztu behar dugu. Euskal Herrirako Curriculumuma “Euskal Herrirako proiektu sozialaren eta kulturalaren garapena helburu dituzten oinarrizko ezagutzen, prozesuen eta baloreen definizioa eta aukeraketa” da.

Euskal Herrirako Curriculumaren elementu soziokultural esanguratsuenetakoan artean ondoko hauek nabarmendu ditzakegu:



- Historia eta honen ezagutza adierazpen garrantzitsuenak, sustrai sozialak, hainbat identitate...
- Ohiturak, sinboloak, sinesmenak, mitologia, erritualak...
- Bizitzaren zenbait ikuspegi: beste herriekiko zabaltzea, baloreak, arauak, garapen morala, bizikidetzak...
- Hizkuntzak eta ahozko eta ez ahozko komunikazio sistemak zein digitalak, etab.
- Estetika eta arte adierazpen moduak (musika, dantza, plastika, artea, dramatika...).
- Zenbait herriren garapenari loturiko ezagutzak (ekonomia, baliabideak...).
- Gizartearen, gizarte ekintzaren, komunitatearen antolaketaren, klase sozialen, taldeen, kolektiboen,...egiturak.
- Gobernu sistemak: prozesu politikoaren garapena, herri-ordezkaritza, herritarren eskubideen eta betebeharren inguruko hausnarketa, demokraziarekiko kritika eta sakontzea.
- Gizarteak garatutako teknologia, mekanismoak, prozedurak eta prozesu teknikoak.
- Berrikuntza, hobekuntza prozesuak, aurrerapen zientifikoa eta kulturala.

Lawton-ek (Torres, J., 1993: 99-n) eskola curriculumean herri baten legatu soziala eta kulturala laburbiltzeko eta irudikatzeko modeloa proposatzen du. Aztertzeko dituen gaiak gizartearen hasierako diagnosiari, herriaren berezitasunei eta garapen formei eta sustatu nahi dituen baloreei buruzkoak dira. Autoreak gure kultura ondarea identifikatzeko ondorengo galderei erantzun beharra dagoela adierazten du:



Zer gizarte mota daukagu?	HERRI BATEN KULTUR ETA GIZARTE LEGATUAREN SISTEMATIZAZIOA	Nola nahi dute gizarte hori osatzen duten pertsonak gizarte horren garapena izatea?
Zer modutara ari da garatzen?		Garapen sozialaren oinarrian eta estrategietan zein balore eta printzipio mota daude hori lortzeko?

Azterketa soziokulturala. Inbariante kulturalak. Lawton (Torres, J., 1993: 99-n)

Autore berak komunitate baten ondare soziokulturalaren alderdi garrantzitsuak zenbait esparrutan sailkatu daitezkeela adierazten du: soziala (pertsonek arteko harremanen definizioa), ekonomikoa, baliabideak ekoizteko, banatzeko eta elkartrukatzeko bitartekoak), komunikazioa (mintzaira, hizkuntza ezberdinak), arrazionaltasuna (justizia...), teknologia (teknikak, bizitza kalitatea kontrolatzeko tramankuluak eta tresnak), esparru morala (kode etikoa), sinesmenak (fenomeno sozialei emandako azalpenak), elementu estetikoak (arteak...), heltzeri lotutako alderdiak (ohiturak eta bizitzeko moduak...), etab. Europako hezkuntza sistemetan dauden curriculum proposamen gehienak elementu hauek dauzkate. Curriculum bakoitzaren berezitasuna eta bitxitasuna, hortaz, balore kulturalen eta herri bakoitzeko gizarte ekintzaren ezaugarrien mende dago.

Curriculum baten edukien aukeraketa beti ere hautazkoa da. Euskal kultura “zer den” eta “zer ez den” zehazteak gure herriko zientzian eta kulturaren dauden esparruen aniztasuna kontuan izan behar du. Gure kultura ikuspegi antropologiko batetik hartzea ez zaigu iruditzen planteamendu ireki eta plurala: “Antropologiak, agian forma kultural xeheagoak eta primitiboagoak aztertzen jarri izan duenez arreta, ohiko kultura, homogeneousotasuna eta ikuspegi artikulatua eta trinkoa nabarmentzeko gehiegizko joera azaltzen du eta kulturaren mugak hain





zehatzak ez direla ahazten du; globalizazio eta interkomunikazio hain indartsuen menpe dagoen egungo mundua bezalako batean, erabateko ikuspegi erromantiko hori ez da posiblea” (J. Carabaña, Feroso, 2000:126-n).

Euskal Herrirako Curriculumama ez da bakarrik proiektu kultural bat. Ezaugarri soziala identitatearen definizioan eta euskal gizartearen berezitasunetan ere islatua egon behar du. “Estuki loturik dauden sistema sozialaren eta sistema kulturalaren konposatu konplexu modura ezagutzen den antolaketa soziala...Bi sistema horiek bata bestearen menpe daude eta bereiztezinak dira...Sistema sozialik gabeko sistema kulturala hildako zibilizazioa da” Rocher (1986: 372).

Gizarte ekintzak gure kultura bizirik mantentzen duen tresna izan behar du, euskal gizartean sortutako aldaketen arabera gure ondarearen hobekuntza eta berrikuntza sustatzeko transformazio egokiak sortzen dituena. Zientzia, kultura eta gizartea estuki lotuta daude. Euskal Herrirako Curriculumama etengabearen eraikitzen eta aldatzen eta ezagutza aukeraketa garrantzitsua izateagatik bereizten da. Euskal gizartea bera (instituzioak, herritarrak, zientifikoak, etab.) da gure ondare soziala eta kulturala zehazten dituen ezaugarriak zer diren (eta zer ez) erabaki behar duena.



EUSKAL HISTORIA	HERRIKO	EUSKAL HERRIRAKO CURRICULUMA	OHITURAK, FOLKLOREA, SINBOLOAK, USADIOAK, IKURRAK
HERRITARRENTZAKO HEZKUNTZA, MUNDUAREN IKUSPEGIAK, BALOREAK, ETIKA			KOMUNIKAZIO SISTEMAK ETA HIZKUNTZAK
ADIERAZPEN ESTETIKOA ETA ARTISTIKOA			EKONOMIA
EGITURA SOZIALAK GIZARTE EKINTZA			GOBERNU SISTEMAK
TEKNOLOGIAK ETA PROZESU TEKNIKOAK			AURRERAPEN ZIENTIFIKOAK ETA BERRIKUNTZA

Euskal Herrirako Curriculumak jasotzen dituen elementu sozialak eta kulturalak.

Euskal Herrirako Curriculumak gure herriaren erronkei eta beharrei zuhurtziaz erantzuteko proposamena duten elementu soziokultural garrantzitsuenak jaso behar ditu.

“Curriculumean momentu zehatz batean gizarteak daukan ezagutza sailkatu eta antolatu egiten dugu kide gazteenek edo hastapenik gabekoek asimilatu dezaten; modu horretara benetako sozializazioa sortzen eta pertsona horien zein komunitatearen garapenean laguntzen da... Beraz, arazo gakoa oinarrizko eta beharrezko ezagutza hori zein den sailkatzea eta zehaztea da, horrek egiten baitu posible gizarte zehatz bateko kideak pertsona aktibo, solidario, kritiko eta demokratiko bihurtzea” (Torres, J., Coll, C. 1988:85-n).

Kultura eta gizartearen arteko loturak izugarri konplexuak dira. Kulturaren zenbait esparru eta ezaugarri (sistema soziala, ekonomikoa, politikoa, zientifikoa...) etengabeko elkarrekintzan ari dira. Kultura sistema bizia da. Etengabeko birsortze, transmisio, eztabaidatze, adierazpen eta jarraipen prozesuan dago. Hezkuntzaren betebeharrak



adierazpen kulturalen kritika eta berrikuntza sustatu behar ditu praktika sozialen eta printzipio etikoen eta moralen arabera.

Gizarteak berak zenbait adierazpen kultural berriz planteatzea behartzen du. Adibidez, Afrikan emakumezkoen ablazioa praktikatzea kulturaren ohituraren zati da, baina, hala eta guztiz ere, herrialde askotan indarrean dauden legeek zentsuratu egiten dute. Ohiko zenbait kultura adierazpen etikarekin eta egungo legeekin gatazkan jartzen dira. Nork erabakitzen du ohiko kulturaren zein alderdi ez direla oso funtzionalak eta ezta ez oso etikoak? eta nork zehazten du zeintzuk zaindu behar diren? nola mantendu gure kultura geldi geratu eta fosilizatu gabe? noiz eta nola sartu behar dira beste herrietako adierazpen kulturalak?

Gertaera sozial eta kulturalen aurrean eskolak erakunde kritikoaren papera jokatu behar du. Hezkuntza-komunitateak, bere neurrian, kulturak sustatu, zaindu edo zentsuratu behar duenaren inguruan parte hartu behar du. Beraz, ikastetxea gizarte komunitatearen erakunde bat gehiago da; hortaz, bizitza eta bizikidetzaren modelo justuagoan, solidarioagoan eta iraunkorragoan bilakatuko dituen ekimen kultural eta sozialak lagundu behar ditu. Euskal Herrirako Curriculumaren garapenak proiektu soziokulturalaren hobekuntzarekin engeiatutako eskola modelo eskatzen eta aldarrikatzen du.

3.-CURRICULUMAREN IKUSPEGI HISTORIKOA

Euskal Herrian garaturako eta zabaldutako curriculum diseinuen ondorioak aztertzeko hainbat Administrazioek aldarrikatutako zenbait lege organiko eta dekretu aipatu beharko genituzke. Hezkuntza legegintzaren garapenak curriculumarekin eta bere hezkuntza-inplikazioekin lotutako printzipioen eboluzioaren ikuspegi panoramikoak ematen digu. Ondorengo



orrietan gure herrian irakaskuntzaren garapenean eragin gehien izan duten preskripzioen azterketa egingo dugu.

Moyano Legea (1857) hezkuntzaren publikotasun filosofia aldarrikatzen eta zehazten lehena da. Honen bitartez “lehen hitzen” eskolak sortzen dira, hezkuntza publikoa babesten Estatuaren betebeharra bermatzen da, derrigor joan behar izatea sustatzen da (6tik 9 urte bitarte), doakotasuna, hezkuntza berdintzen saiatzen da (testu liburuak, irakasleen tituluak...), Ikasketen Zuzendaritza Nagusia sortzen da eta horrekin batera irakaskuntzaren legeria garatzea zaindu eta administrazio publikoek beren gain hartu beharreko erantzukizuna dela onartzen da.

Legeak irakaskuntza hiru mailatan sailkatzen du. Lehenengo hezkuntza unibertsaltasunagatik ezagutzen da; erlijio katolikoa hartzen da bakartzat eta beste guztiak baztertu egiten dira. Bigarren hezkuntzak goi mailako ikasketetarako prestakuntza du helburu. Azkenik, goi mailako irakaskuntzan ohiko ikasgaiak ematen dira (teologia, jurisprudentzia...) eta elite intelektualari zuzenduta dago.

Lehen Hezkuntzaren curriculumak (6-9 urte) irakurketa eta idazketa moduko ikasgaiak, kristau dotrina eta historia sakratua, gaztelaniaren gramatika, latina, geografia, aritmetika eta marrazketa moduko ikasgaiak eta irakasgaiak hartzen ditu.

Bigarren hezkuntzan, (10 urtetik aurrera) latina, gaztelania, grekoa, erretorika eta poetika, aritmetika, algebra, geometria, fisika eta kimika, historia, geografia, etab. ikasten dira. Maila honetan sartzeko azterketa orokorra gainditzea beharrezkoa da. Garai honen iraupena sei ikasturtekoa da.



Hirugarren Hezkuntza unibertsitatekoa da. Hasieran goi mailako bost fakultate sortzen dira: Filosofia eta Letrak, Farmazia, Medikuntza, Zuzenbidea eta Teologia; Batxiler, Lizentziatu eta Doktore tituluak lortzen dira.

Hezkuntza sistemaren irakasleen izendapena gobernuak edo dagozkion delegatuek egiten dute.

Hezkuntzaren Lege Nagusia (1970) curriculum eremuan eragin handia duten beste legeetako bat da. Honela laburtu ditzakegu lege sortzailearen printzipioak:

-Aukera berdintasuna: hezkuntza sistemak biztanleria guztiari eman behar dio heziketa.

-Legearen malgutasuna, joera bateragarrietatik aldentuz.

-Irekitasun pedagogikoa: ez dago dogma pedagogikoak sortzeko asmorik, alderantziz, hezkuntza metodoen onarpenean askatasuna sustatu nahi da.

-Ikasketa planen berrikuntza: edukiak berrikustea eta aldatzea.

-Irakaskuntzaren kalitatea: hezkuntza sistemaren eraginkortasuna hobetu nahi da.

-Irakasletza hobetzea. irakaskuntza-trebakuntzan eta duintasun sozialean zein ekonomikoan arreta berezia jartzen da.

-Hezkuntza eta enplegua: profesional espezializatuak prestatzeko trebakuntza.

-Hamar urtetik behin berriztatzeke ezarpen graduala.

Legearen alderdi positiboen artean hezkuntza mailen edo etapen arteko lotura eta koordinazioa, ezartze graduala, 6 eta 14 urte bitarteko umeentzako derrigorrezko eta doako oinarrizko hezkuntza, batxiler bateratua eta balio anitzekoa sortzea, lanbide heziketa lanean hasteko moduan artatzea, unibertsitateko lehen zikloa profesio motzetan



trebatzeko kontuan hartzea, irakasteko metodo berriak sartzea (fitxak...), hezkuntzan Estatuaren protagonismoa onartzea eta Administrazio eraginkorragoa antolatzeko kezka moduko gaiak aipatu daitezke.

Akats eta gabezi nabarmenen artean, legitimazio demokratikorik eza, erreforman irakasletzak parte ez hartzea, erregelamenduen garapen nahastua, bi bideren arteko diskriminazioa (lanbide heziketa eta batxilerra), unibertsitateko erreformaren porrota, merkatura gutxi lotutako lanbide heziketa, etab. daude. (Puelles, 1987). Legea ikastetxetik periferiara diseinatu zen, eta ondorengo aldaketak irakasleek parte hartu gabe egin ziren. Erreforma teknokratikoa da, alegia, diktaduraren ideien eta garai hartako presioen zein premia sozialen arteko oreka bilatzen zuten adituak diseinatu da.

1980an Oinarrizko Hezkuntza Orokorraren Programa Berrizatuak argitaratzen dira; Estatuko ikasle guztientzat premia eta erreferentzia komunak zehazten dute. Dokumentu honekin programa berriak garatzeko dagozkion curriculum materialak eta testu liburuak aldarrikatzen dira ere.

Irakaslearen profila eta papera Administrazioaren preskripzioenganako mendekotasun osoa izatea da. Curriculuma izaera teknikoko arazoa moduan definitu daiteke. Estrategia eta metodo hobeak landu nahi dira irakaskuntzaren eraginkortasuna handitzeko. Eskoletan adituek diseinatutako metodoak zorroztasunez ezartzen badira, zientifikoki bermatuta, irakaskuntzan aldaketa garrantzitsuak izango dira. Curriculum kontzeptu honen azpitik dagoen planteamendua teknologia motakoa da. Irakaslea adituek proposatzen dioten metodoen ezartzailea baino ez da. Bere zeregina ez da irakaskuntzari buruz hausnarketa egitea, baizik eta beste goi instantzietako adituak gomendatzen dioten errezeta praktikan jartzea. Metodo berriak unibertsitateetan eta ikerketa zentroetan probatzen eta esperimentatzen dira eta eskoletan zehatz-



mehatz aplikatzen dira. Irakasleak ez ditu prozesu didaktikoak kritikatu behar. Bakarrik adituek proposatzen dioten estrategiak aplikatzen ditu zorrotz.

Suposatzen da aldaketa ondoko baldintzapean gertatuko dela, beti ere aurreko zikloa zorrotztasunez aplikatzen bada: diseinua, programa baten froga esperimentalak, honen onspena eta hedapena eskoletan. Suposatzen da irakasleek proposatutako metodoak hartzen dituztela eta beharrezko informazioa eta baliabideak behin eman eta gero praktikan jartzen dituztela. Irakasleak curriculumaren inguruko hausnarketari eta erabakiak hartzeari dagokion eremuan ez dauka ezer esateko eskubiderik.

Modelo mota hauek programatutako irakaskuntzarekin lotutako curriculum materialak (fitxak...), talde homogeneoak, helburu operatiboak eta, batez ere, ikaslearen edukien eremuan oinarritutako ebaluazioa praktikan jartzeko erabili ziren.

LOGSEa (1990) izango da ziur asko demokrazia garaian erresonantzia eta curriculumaren inplikazio handien izan dituen legea. 1970eko hezkuntza erreformaren ekimenak agortzen ari dira, eta mende bukaerako gizarteak dituen behar berriei erantzun nahian sartzen da indarrean lege berri hau.

Legea oposizioko alderdi nagusiarekin negoziatua izan zen, baita elizarekin eta hezkuntzako eragile nagusiekin (sindikatuak, gurasoen eta ikasleen kolektiboak...) ere. Ia bost urteko eztabaida, hausnarketa eta hainbat esperimentazioen ondoren (1987ko Irakaskuntza Aldatzeko Proiektua, Eztabaidarako paperak, 1986ko Helduen Heziketarako Liburu



Zuria, 1989ko Hezkuntza Sistemaren Erreformatarako eta Oinarrizko Curriculumuma Diseinatzeko Liburu Zuria), 1990ean onartu zen legea.

Erreformataren oinarrizko printzipioak etengabeko hezkuntza, aukera berdintasuna eta hezkuntzarako eskubidea lortzera bideratuta daude. Gainera, askatasunarekin, tolerantziarekin, elkartasunarekin, demokraziarekin, oinarrizko eskubideekin eta, batez ere, generoa dela eta gertatzen diren bazterketen aurkako baloreak bultzatu nahi ditu (Marín, 1991).

Hezkuntza sistemak aldaketa sakonak eta eragin handiak izan zituen. Bere egituraren mailarik garrantzitsuenak Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH dira. Derrigorrezko hezkuntza 6 urtetik 16 urtera hedatzen da. Batxilergoa eta Lanbide Heziketa dira ikaslea unibertsitatera eta lan mundura bideratzen dutenak. Legeak, gainera, indar berezia jartzen du herritarren etengabeko hezkuntzan.

Haur Hezkuntzaren ezaugarriak puerozentrikoa, globalizatua eta ludikoa izatea dira. Bere helburuak psikomotrizitatearekin, estimulazio sensorialarekin, pentsamendu sinbolikoarekin, gorputzaren kontrolarekin, komunikazioarekin, norberaren irudi positiboarekin eta sozializazioarekin lotuta daude. Garai honen balio konpentsatorioa nabarmentzen da.

Lehen Hezkuntza (6-12 urte) hiru ziklotan egituratzen da, eta ziklo bakoitza bi urtekoa da. Kooperazioa, komunikazioa, ardura, besteekiko errespetua, zentzu kritikoa eta tolerantzia gisako baloreak garatu nahi ditu. Curriculumaren alorrik garrantzitsuenak inguruaren ezagutza, heziketa artistikoa, heziketa fisikoa, hizkuntzak eta matematikak dira. Arazoen irtenbidearen bilaketan, ikaslearen erritmoaren errespetuan, ikasketa esanguratsuan, eta abarrean oinarritutako irakaskuntza



estrategiak erabiltzea gomendatzen da. Etapa honetako ebaluazioa etengabea eta orokorra da.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) izan zen erreformaren berrikuntza garrantzitsuenetako bat. 12-16 urteko etapa berriak lehen zikloak maisu-maistrak izango ditu, bigarren zikloan, ordea, lizentziatuak dira. Ekimen hori ez da sisteman ondo hartu. Gaiak orokorrak eta aukerakoak izango dira eta ebaluazioa etengabea da, baina ez orokorra. Ikasleak ikasturteak gaika eta ezagutza eremuka gainditu behar ditu. Bigarren Eskola Agiria titulua lortzen da amaitzean. Etapa hau hezkuntza sistemaren ikusmira bihurtu da bere eraketak eta kohesioak duen zailtasunagatik (ikasle eta irakasleen arteko elkarbizitza, kultura profesional ezberdinak...)

Curriculumak jite erdi irekia hartzen du eta administrazioak, gutxi gorabehera, horren definizioaren arduraren %55 hartzen du bere gain, komunitate autonomoek eta ikastetxeek, ordea, %45. Eredu honek curriculumari dagozkion erabakietan irakasleei parte hartze handiagoa ematen die. Curriculumaren kudeaketan irakaslearen rola parte-hartzaileagoa da, gainera, ikastetxea eta horren egoera (ingurune zehatza, klima, sinesmenak, gatazka, egitura...), irakaskuntza eta ikaskuntza prozesua baldintzatzen duten elementu gisa onartzen eta errespetatzen da eta hori guztia aurrerapauso handia da. Irakaslea curriculumeko eragile aktiboa eta zuhurra da, proposamenen sortzailea eta praktiken ebaluatzailea. Ikuspegi honek inplikazio interesgarriak sortzen ditu profesionalen trebakuntzan eta hezkuntza zentroen ikuspegi intepretatiboan.

Ikuspegi horren ezaugarri nagusia honakoa da: prozesu curricularrak ez dira linealak eta ez dira modu teknikoan bakarrik



garatzen. Fenomeno konplexuak dira, aldaketak izaten dituzte, eta, zenbaitetan, ez dute hezkuntza praktikan eragin handirik izaten.

Badira dinamika curricularretan eragin zuzena duten faktoreak. Hezkuntza instituzioa ezaugarri bereziak dituen erakundea da, eta, beraz, curriculumarentzat oztopoa da. Ikastetxea praktika fenomenologikoen ingurutzat jotzen da; bertan irakasleek pentsaera eta sinesmen egitura propioak, aldaketak ulertzeko eta praktikara eramateko modu berezia dituzte. Irakasleen curriculumaren ikuspegi propioak, zein irakaskuntzarako profesionalen errepertorioan eskura dituzten ekintza ereduak izango dira eskaintzen diren berrikuntzen artean eta ikasleekin burutzen dituzten hezkuntza praktiken artean bitartekari funtzioa beteko dutenak.

Esan daiteke, irakasleek curriculumaren eta bere praktikaren artean betetzen duten “lotura” funtzio hori izango dela, askotan, gelan burutu beharreko prozesuak iragazi eta berriz definitzera eramango duena. Bi instantzia horiek (ofiziala eta benetako praktika), berrikuntza eta praktika curricularraren arteko harremanean bitartekari eta berregile dira. Curriculumaren ikuspegi interpretatibo-kulturala bi justifikazio horietan oinarritzen da. Irakaslea erabaki pertsonalak hartzen dituen curriculumaren eragile aktibotzat jotzen da; irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak iragazi eta berregiten dituena.

Legeak ikasketaren ikuspegi psikologista islatzen duela esan daiteke, nahiz eta kontraesanak direla-eta ez duen behar bezala onartu. Ez zen curriculumaren inguruko eztabaida sakonik egin, eta ez ziren eredu ofizialarengandik ezberdinak ziren proposamenak egin. Gainera, curriculumaren diseinuan bultzatutako nozio eta alternatiba psikopedagogikoek eta psikologikoek ez zuten espero zen onarpenik izan. Ikuspegi soziologikoa (nolako gizartea nahi den, nolako hiritarra



nahi den, etab.) zuten planteamenduak sustatzeak ere ez zuen interes handirik sortu. Erreformatik burokrazia eta zentralismo gehiegi jasan behar izan zuen, izan ere, administrazio bakoitzak curriculumaren diseinuari bere ekarpena egiteaz arduratu baitzen.

Hezkuntza Lege Organikoa- HLO (2006) da curriculumaren oinarriak ezartzen dituenak. Curriculumama honela definitzen du: "helburu multzoa, oinarrizko konpetentziak, edukiak, legeak arautzen dituen irakaskuntzen metodo pedagogikoak eta ebaluaziorako irizpideak" 9). Legearen garapenean garrantzia handia du eskumenen kontzeptua onartzeak.

Etaparen helburuei dagokionez, Haur Hezkuntzan garapen afektiboa, gorputzaren kontrola, komunikazioa eta lengoia ezberdinak, elkarbizitza irizpideak, harreman soziala" ingurunearen ezagutza etab. bultzatu behar dira. Lanerako metodologia jolasa, esperientziak eta interes guztiak dira.

Haur Hezkuntzak elkarbizitza eta baloreak, lanerako ohiturak, kultura ezberdinekiko errespetua, hizkuntza ofizialak jakitea eta kanpoko hizkuntza ezagutzea, matematikan konpetentziak, ingurune naturalaren balorazioa, informazioa eta komunikazio teknologien erabilera, osasuna eta garbiketa eta afektibitatea bultzatzea nahi du.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak honako helburu hauek lortu nahi ditu: beharren ardura hartzea eta eskubideak ezagutzea, diziplina ohiturak garatzea, sexu ezberdintasuna eta aukera berdintasuna errespetatzea, afektibotasuna indartzea, zentzu kritikoa bultzatzea, ezagutza zientifikoa jakintza bezala ulertzea, izpiritu ekintzailea



sustatzea, hizkuntzak ezagutzea, ezagutza historiko eta kulturalak errespetatzea, sorkuntza artistikoa estimatzea, etab.

Euskal Herrirako Curriculumerantz bideratutako ekimenak ez dira berriak. Laurogeigarren hamarkadan aurrerapen garrantzitsuak egin ziren alor honetan. Gure herrian ideiek, gizarte-mugimenduek eta pedagogi korronteek era bateko edo besteko aurrekariak izan dituzte. Aurrerago izan dira ekarpenak, eskarmentu eta laguntza esanguratsuak itxarondako emaitzak jasotzeko eremua prestatu dutenak. Sineskortasunez jokatzea litzateke mundua gurekin edo gutariko bakoitzarekin hasten dela pentsatzea.

Lerro gutxi hauen bidez ez dugu Euskal Herrirako curriculumari dagokionean aurretik izan diren lan eta ekarpen guztien berri jaso nahi. Errealitate esanguratsu batzuk aipatzea baino ez dugu egingo.

Aspalditik argialetxe askok arlo curricularrei buruzko liburuak jarri dituzte merkatuan. Testuliburu, gida-liburu eta beste curriculum-materialek bide luzea dute egina. Hamaika ikaslek ikasi du curriculum-material hauen ildoak jarraituz. Testuliburu eta gida didaktiko orotan edukien hautaketarako esfortzua, orientabide pedagogikoa, ideien antolamendua, irudi eta testu idatziaren arteko lotura eta eskaintza curricular bat dago.

Laurogeigarren urteen hasieran, Oinarrizko Hezkuntza Orokorren erreforma curricularra egin zen. Programa Berrituak bezala ezagutua izan zena da. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak hezkuntzarako zegozkion eskuduntzak bere gain hartu zituen eta Euskal Autonomi Erkidegorako curriculum ofizial baten proposamena egin zuen. Arlo guztietako curriculum proposamenak argitaratu ziren, zikloka antolatuak,



eta euskararen irakaskuntzarako planteamendu zehatzak egin ziren, hauek ere zikloka. “Liburu urdinak” bezala ezagututako argitalpenak burutu ziren. Hauek argitaratzeaz gain, Euskal Autonomi Erkidegorako curriculum bat ofizializatzen zuten testu legalak onartu ziren. Lehenengo aldia zen Euskal Herrian curriculum ofizial eta legal bat existitzen zena, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak sustatua.

Geroago, LOGSEa zela eta, Euskal Autonomi Erkidegorako curriculum ofiziala berdiseinatu zen. Curriculumaren antolamendu horretan, garai hartan nagusitzen ziren ekarpen pedagogiko eta psikologikoak txertatu ziren eta curriculum ofizialerako proposamenak argitaratu ziren. Proposamen hauen ondorioz garapen curricularraren inguruko hainbat ebazpen egin ziren. Hondoko taulan ildo honetatik sortutako hainbat aginte-ekimen ikus ditzakegu:

EAE-N LOGSE-AREN INGURUAN PROMULGATU ZIREN DEKRETU BATZUK

- | |
|--|
| -Haur Hezkuntzaren Curriculum Garapenerako Dekretua (1992-8-27 EHAA).
-Lehen Hezkuntzaren Curriculum Garapenerako Dekretua (1992-8-27 EHAA).
-Haur eta Lehen Hezkuntzak ezartzeko Agindua (1992-8-28 EHAA).
-Curriculum-egokitzapenei buruzko Aginduak (1993-6-1 EHAA).
-Haur Hezkuntzako ebaluaketari buruzko Agindua (1993-6-1 EHAA).
-Lehen Hezkuntzako ebaluaketari buruzko Agindua (1993-6-1 EHAA).
-Bigarren Hezkuntzaren Curriculum Garapenerako Dekretua (1994-6-21).
-Lanbide Hezkuntza Espezifikoaren Oinarrizko Curriculum Diseinua (1994-6-21).
-Batxilergoaren Oinarrizko Curriculum Diseinua (1994 abuztua). |
|--|

...

EAE-en LOGSE-aren inguruan promulgatu ziren dekretu batzuk.

Une horretan curriculumaren iturriei buruzko hausnarketa egin zen, korrante kognitiboak sartu ziren, ikasle guztien eskola-integrazioari buruzko ideietan aurreratu egin zen eta arlo guztietan planteamendu curricular eta didaktikoak egin ziren; eta hori guztia berrikuntza planteamenduei lotuta dago, Pedagogi Aholkularitza Taldeen edo irakasleen laguntzarako beste baliabideen parte hartze handiarekin.



Laburbilduz, garatutako ekimen desberdinek, nagusiki laurogei eta laurogei eta hamarreko hamarkadetan, geroago Euskal Herrian egindako diseinu curricularren oinarriak eraiki dituzte.

4.- GURE INGURUKO HERRIALDEETAKO CURRICULUMA

4.1.- Curriculumuma European

Azken hamarkadan gure inguruko herrialdeek aldaketa garrantzitsuak izan dituzten euren hezkuntza sistematan. Europak aldaketa izugarria izan du eskola ereduetan eta eraginkortasunean eta kalitatean ahalegin berezia egin du. Estatuak hezkuntza sistema berrantolatu dute, curriculumean eta ikastetxeek lortutako emaitzetan kontrola areagotuz. Hezkuntza sisteman kontuak emateko politikak kontinenteko zenbait herrialdeetako eskolen artean lehiakortasun giroa sortu du.

Hurrengo orrietan kontinenteko derrigorrezko hezkuntzaren ezaugarriak aztertuko ditugu. Gure ibilbidea eremu curricularren eta ezaugarri zehatzen arabera egin dugu

4.2.- Haur eta Lehen Hezkuntza

Hezkuntzaren joera eraginkorra duen adibide garbiena **Ingalaterra** da. Laurogeita hamargarren hamarkadatik hezkuntza sisteman ikastetxeen arteko lehiakortasunean eta eskumen deszentralizazioan oinarritutako ereduak aplikatzen ari dira. Hezkuntza Erreformaren legeak (1988) (*Education Reform Act*) lehen harria jarri zuen. Lehen eta bigarren hezkuntzarako curriculum nazionala sartu zuen, eta hezkuntza



zentroetan garatutako curriculum proiektuen kontrol zentralizatua bultzatu zuen. Ikasleek derrigorrezko zenbait gai dituzte (zientziak, teknologia, historia, geografia, artea, musika eta hezkuntza fisikoa) eta aukerakoak oso gutxi dira. Gobernu zentralak, estatuko curriculumak zehaztutako helburuak direla-eta, hezkuntza zentro bakoitzak lortutako emaitzak argitaratzeko eskumena du. 1990etik ikasle guztiek 7, 11, 14 eta 16 urterekin froga nazional bat pasa behar izaten dute. Eskolek lortutako emaitzek zuzenean eragiten dute gobernuak emandako laguntza ekonomikoetan.

Ingalaterrako aldaketa curricularra gizartearen eraldaketaren ondorio izan da. Immigrazioa, osasunerako hezkuntza, drogak, indarkeria, arrazakeria, sexu hezkuntza, teknologia berriak, gizarte eta harreman hezkuntza, etab. Ezaugarri horiek dituen diseinu curricularrean eragina izan duten gaietako batzuk dira. Azken urteetan beste araudi batzuk ere bultzatu dira, hala nola, derrigorrezko hezkuntzan eskola porrotari aurre egitea eta oinarrizko ezagutzak hartzea helburu dutenak. Gainera, izaera komunitarioagoa duten hezkuntza proiektuak bultzatu dira, bazterketa maila gutxitzeko tokiko instituzioen arteko garapena bultzatu dutenak.

Laburbilduz, Ingalaterran curriculumaren zentralizazioa eta gobernuak hezkuntza zentroenganako kontrola bultzatu da, eskola erakundeen arteko lehiakortasun handia sortuz. Maila orokorrean hezkuntzaren enpresarializazioa gertatu da eta, oro har, hezkuntza zentroyen finantziazio sistemarena.

Italiak ere azken urteetan aldaketa ugari izan ditu hezkuntza sisteman. Zenbait ekimen legal jarri dira martxan kudeaketarekin, alderdi pedagogiko-didaktikoekin eta ikasgelako bizitzarekin zerikusia duten zenbait alderdi aldatzeko. Derrigorrezko hezkuntza 6 urtetik 15 urtera



bitartekoa da eta bukatzean gainditutako ikasketen eta jasotako eskumenen berri ematen duen ziurtagiria jasotzen da. Gainera, hezkuntza sistemaren deszentralizazio prozesua izan da. Hezkuntzarekin zerikusia duten hezkuntza eragile guztiei Heziketa Eskaintza Plana (POF) delakoan parte hartzeko dei egin zitzaion. Ikastetxeei POF euren curriculumak inguru zehatzari egokituta sartzeko aukera ematen zaie.

Autonomia pedagogiko-didaktikoak ikastetxeei indibidualizatzeko eta curriculumak egokitzeko aukera ematen die, ikaslearen beharren arabera egituratzeko eta ikasgeletan ikasketa aktibatuko duten metodoak bultzatzeko. Curriculum mailan, Italian programa zehatzegien eta uniformeen garaia bukatu da. Erreforma legea oinarri hartuta curriculumak egokitu daitezke zentro bakoitzaren helburuen eta ikasleen ikasketa eskumenen arabera. Horrek guztiak euskarri gisa Derrigorrezko Curriculum Nazionala du, baita herrialdeko testuinguru zehatzetara egokitu daitezkeen ildo orokorrak ere.

Alemanian estatu bakoitzak bere hezkuntza politika du. Haur Hezkuntza (Kindergarten) ez da derrigorrezkoa (3-6 urte) eta hezkuntza helburua baino gehiago dauka helburu soziala. Zenbait länderretan “eskolaurreko eskolak” sortu dira 5 urteko haurrentzat, eta lehen hezkuntzako ikastetxeen menpe daude.

Derrigorrezko hezkuntza 6 eta 18 urte artekoa da. Lehen hezkuntzan curriculumak haur guztientzako orokorra da eta derrigorrezko bigarren hezkuntzara pasa ahal izateko oinarrizko ezagutzak ematen ditu. Ohiko gaiez gain (matematika, natur zientziak, gizartea, hizkuntzak...) Alemaniako estatu guztietan erlijioa, musika, artea, artisautza eta heziketa fisikoa ikasten dute. Lehen hezkuntzatik bigarrenean automatikoki igarotzen da “Eskola Nagusia”n (Hauptschuler) edo “Eskola integratuan”n (Gesamtschule) sartuz. Dena dela, Gymnasiumen edo



Realschulen (unibertsitaterako prestaketa) sartu nahi baldin bada, lehen hezkuntzako eskolaren oniritzia duen txostena behar dute eta sarrera azterketa egin behar dute.

Irlandan ez dago haurra eskolaurreko garaian eskolaratu beharrik. Haur eskolak lehen hezkuntzako ikastetxeekin lotuta daude eta eskolaratze goiztiarraren ehuneko handia dago. Lehen hezkuntzako ikasketek 8 urte irauten dute (First Level), haur eskolatak eskolaurreko bi urteak kontuan hartuta. Curriculumeko gaiak honakoak dira: irlandera, ingelesa, matematikak, gizarte eta ingurumen azterketak, artea eta diseinua, musika, hezkuntza fisikoa eta erlijioa. Lehen hezkuntzaren amaieran ez da azterketarik egiten (Álvarez, 1999)

Suedian derrigorrezko hezkuntza 6 urtetik 16 urtera artekoa da. 1993ko erreformak bi zatitan banatzen du (12 urte arte) eta banaketa horren muga ikasleek adin horretan egin beharreko azterketa nazionalak ezartzen du. 16 urterekin mota honetako beste azterketa bat egin beharko dute. Normala denez, emaitzak kontrolatzeko dinamika horrek hezkuntza zentroen arteko lehiakortasun handia eragin du.

Curriculum eskolak egiten du, eta horretarako Hezkuntza ministerioak diseinatutako marko nazionala izaten du kontuan. Honek hezkuntzaren helburuak zehazten ditu, derrigorrezko gaiak eta bakoitzaren edukiak. Ikastetxe guztiek erlijioaren printzipioa izan behar dute euren proiektu curricularretan. 12 urte arte curriculum gaika antolatzen da eta bigarren etapan ikaslearen interesek indar handiagoa hartzen dute. Gainera, Suediako sistemak garrantzia handia ematen dio ikaslea akademikoki bideratzeari eta bokazioari.

Danimarkan hezkuntza publikoa da nagusi eta derrigorrezko hezkuntza 7 urtetik 16 urtera bitartekoa da. Danimarkako sistema



curricularren eredua konprentsiboa da. Eskolaurreko hezkuntzak 6-7 urte arteko haurrak hartzen ditu eta Hezkuntza Ministerioak eta Gizarte Gaiek modu bateratuan hartzen dituzte. Lehen hezkuntzan ikasgelak modu heterogeneoan osatzen dira, matematika, ingelesa eta alemana izan ezik; horietan ikasleak gaitasunaren eta mailaren arabera sailkatzen dira. Curriculumaren ohiko gaiak honakoak dira: daniera, ingelesa, ikasketa garaikideak, matematika, hezkuntza fisikoa, artea, musika, historia, geografia, etab. Ebaluazio sistemari dagokionez, azterketa nazionala prestatu behar den gaitan egiten dira probak. (Ferrer, F., 2004)

Estatu Frantsesean, eskualdeen eta udalen autonomiaren aldeko zenbait lege aldarrikatu arren, oso joera zentralistak dituzten baldintzak daude. Eskolaurreko hezkuntza (*Enseignement Préélémentaire*) aukerakoa da Frantzian eta 2 urtetik 5 urterakoa da. Hiru urte dituztenean haur guztiak, familiek hala nahi badute, haur hezkuntzako zentroetan tokia dute. Biztanleen %100 eskolatuta dago (1995etik gutxi gorabehera). Etapa honen helburua haurren gaitasun guztiak lantzea eta izaera garatzea da, ikastetxean eta bizitzan arrakasta izateko aukerak emanez.

Lehen Hezkuntzako ikastetxeetara joatea doakoa da eta sei urtetik aurrera derrigorrezkoa. Ordutegiak araudien arabekoak dira, baina derrigorrezko gaitan malgutasuna dute. Ia herrialde osoan irakaskuntza laikoa da. Curriculumeko derrigorrezko gaien artean honakoak aipa daitezke: frantsesa, historia, geografia, matematika, gizalegezko heziketa, heziketa fisikoa, zientzia eta teknologia, heziketa artistikoa, etab. Saiakerak egiten ari dira irakaskuntza eskualdeetako hizkuntzetan egin ahal izateko. Ikaslearen ebaluazioa tutoreak egiten du, eta horretarako zikloan inplikaturako gainerako irakasleen iritziak entzuten ditu. Ikasturte hasieran ohikoa izaten da izaera nazionala duten frogak



egitea irakasleei ikaslearen egoera eta maila zein den jakiteko. Proba horietan matematika, irakurketa eta idazketa ebaluatzen dira oro har.

4.3.- Behe mailako bigarren hezkuntza

Bigarren Hezkuntzako curriculumaren diseinuari dagokionez, Europako joerak asko eta oso ezberdinak dira. Esan dezakegu curriculumaren eskumenen banaketa Estatuetatik egiten dela. Horien joera Oinarrizko Curriculum Nazionala diseinatzea da, oro har, eskualde eta komunitateei egokitu daitekeena. Joera hori honako herrialdeetan ematen da: Austria, Espainia, Frantzia, Alemania, Luxenburgo, Grezia, Italia, Irlanda, Portugal, etab. Curriculumari dagokionez hain zentralista ez direnak, berriz, Erresuma Batua, Suedia, Holanda, Finlandia, Danimarka eta Belgika dira.

Etaparen helburu orokorrak direla-eta, herrialde gehienek garapen intelektualarekin zerikusia duten helburuak zehazten dituzte, esaterako, lanerako ohiturak, jarrerak eta baloreak, garapen fisikoa, emozionala eta psikikoa, autonomia, gizarteratzea, garapen pertsonala eta eskola orientazioa eta bokaziokoa.

Derrigorrezko gaiei eskainitako denborari dagokionez, Europar Batasuneko herrialdeek oreka irizpidea mantentzen dute. Ama hizkuntzari dagokionez Danimarka, Italia eta Belgika dira garrantzia handien ematen diotenak. Atzerriko hizkuntzetan Danimarka eta Alemania; Belgika, Austria, Ingalaterra eta Frantzia bezalako herrialdeak dira matematikari denbora gehien eskaintzen diotenak azpi bigarren hezkuntzan, gizarte zientzietan, berriz, Belgika, Portugal, Italia, Holanda, Frantzia eta Danimarka dira ahalegin handiena egiten dutenak. Natur zientziei dagokienez Erresuma Batua, Finlandia, Alemania, Frantzia eta Portugal dira gai honetan sistematikoenak.



Behe Mailako Bigarren Hezkuntzan aukerakotasuna %86-87koa da Finlandia eta Espainian; Ingalaterra, Danimarka, Grezia eta Italian, ordea, erabat desagertzen da. Humanitateak eta zientifiko-tekniko deituriko gaien arteko orekan humanistiko eta gizartekoen aldeko joera nabarmena da (%52tik %29ra). Banaketa orekatuena dutenak Finlandia, Erresuma Batua, Frantzia, Holanda eta Espainia dira. Oreka gutxien mantentzen dutenak Irlanda eta Italia dira.

Atzerriko hizkuntzei dagokionez, ingelesa da gehien ikasten dena Alemania, Austria, Danimarka, Espainia, Finlandia, Grezia, Frantzia, Italia eta Suedian. Frantsesa Belgika flamenkoan, Luxenburgon eta Irlandan ikasten da, batez ere.

Hezkuntza behar bereziei dagokienez, bi joera nagusi daude Europan. Ikastetxe berezietan eskolaratzea eta zentro arruntetan integratzea. Bigarren joera da nagusi herrialde guztietan. Sistema arrunteko zentro bereziak (lehen aukera) Alemanian, Belgikan eta Finlandian finkatuago daude. Dena dela, zehaztu beharra dago “berezi” deituriko zentroetan eskolaratutako ikasleen ehunekoa oso txikia dela.

Lan metodologiei dagokien joera (Europa osoan ia bateratua), irakasleari gai honetan askatasuna ematea da. Ebaluazioari dagokionez, ez da inolako titulazio berezirik eskatzen Behe Mailako Bigarren hezkuntzan sartu ahal izateko, Grezian, Italian eta Belgikan izan ezik. Etengabeko ebaluazioa eta finala egiteko sistemak ugariak eta ezberdinak dira, azterketa idatziak, ahozko frogak, lan praktikoak, etab. nabarmenduz. Espainian, Alemanian, Holandan, Belgikan eta Luxenburgon izan ezik, ia herrialde guztietan azterketa finalak bultzatzen dira (Behe Mailako Bigarren hezkuntzan). Europar Batasuneko herrialdeetan oro har ikasturtea errepikatzeke aukera badago (Ferrer, F., 2004).



Azkenik, derrigorrezko hezkuntzan gaikako ebaluazioak duen garrantzia nabarmendu behar dugu. Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Programa (PISA) Kooperaziorako eta Garapen Ekonomikorako Erakundeak (OCDE) sustatutako programa bat da eta ikasleen errendimendua aztertzen du. Ebaluatutako gai nagusiak matematika, zientziak eta irakurketa dira. 2003an buruketen ebaluaziorako gaitasuna ere ebaluatu zen. Ekimena hiru urtean behin burutzen da eta emaitzak herrialdeak ranking batean kokatuz azaltzen dira (MEC, 2005). Alabaina, proiektu hau kritikatu izan da, izan ere ebaluazioaren globalizazioa suposatzen du, kontestu zehatzak kontuan izan gabe eta oinarrizko arlo instrumentaletara mugatua, orain arte, beste hezkuntza dimentsio batzuk ere sartu beharrean.

4.4.- Bizitza osoan izandako ikasketa: Euskal Herriko eta Europako hiritarrentzako erronka

Herrialde garatuetako pertsonen hezkuntza oso goiz hasten da eta Goi Hezkuntzan bukatzen da. Gure gizarteak azkar egiten du aurrera eta, ondorioz, pertsonen trebakuntza beharrak etengabe egokitu behar dira. Gizarte sistemaren eta produkzio sistemaren transformazioek askotan herritarrak lanez aldatzera eramaten ditu eta egoera berriari aurre egiteko gaitasuna hartzera.

Berrogeita hamarreko hamarkadan UNESCOk Etengabeko Hezkuntza kontzeptua onartu zuen arren (Elsinor-Danimarkako konferentzian), Hamburgun (1997) egindako Helduen Hezkuntzaren Konferentzian berriz formulatu zen eta “bizitza osoko hezkuntza” deitu zitzaion. Kongresu horretan gizarte justizia, bakea lortzeko lana eta hezkuntza formalaren eta ez formalaren arteko harremanak lortzera



bideratutako ekimen guztiak kontuan hartzea erabaki zen. Ordutik aurrera, gero eta gehiago dira hezkuntza bizitza osoan jasotzen den zerbait dela esaten dutenak. Tejadaren (2005) lanaz baliatuta, Europako ekimen berrienen azaleko azterketa bat egingo dugu:

2001ean, Pragan egindako Hezkuntza ministroen konferentzian goi mailako hezkuntzaren garapena aztertu zen eta derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzak eta unibertsitateak hiritarren etengabeko hezkuntzan duen garrantzia nabarmendu zen. Bizitza osoko ikasketa gizartearen kohesio, aukera berdintasun, lehiakortasun eta bizitza kalitatea hobeko elementu gisa aipatzen da.

Stockholm-eko Europar kontseiluan (2001) komisioak epe ertainera giltzarri diren bost helburu ezartzea adosten du: Europako hezkuntzaren kalitatea hobetzea, ikasketarako sarbidea edozein adinetan erraztea, ikasleen oinarrizko gaitasunak indartzea, hezkuntza ingurunearekin lotzea eta hezkuntza instituzioen kalitatea ziurtatzea. Ikus dezakegun bezala Europako agintariek etengabeko formazioaren garrantzia nabarmendu dute, baita prozesuaren kalitatea lortzea ere.

Bruselako konferentzian (2002) Europako Hezkuntzaren arduradunek zenbait proposamen adosten dituzte, hezkuntza sistemen bateragarritasuna eta malgutasuna nabarmentzen duten proposamenak. Erabakirik garrantzitsuenak honako terminoetan laburtu daitezke:

-Europako hezkuntza eta formazio sistemak bateragarriak izan behar dute herritarrak batetik bestera pasatzeko eta dibertsitatea aprobetxatzeko.

-Tituluak eta ezagutzak dituzten pertsonak Europar Batasuneko edozein tokitan arazorik gabe balioztatu ditzaten.

- Adin guztietako Europako hiritarrek etengabeko hezkuntzara sarbidea izateko.



Copenhagueko Adierazpenean (2002) aipatzen da EBk irizpide komunak aplikatu behar dituela Lanbide Heziketa hobetzeko eta kalitate kontrola ezartzeko. Hezkuntzako etapa honi oinarrizko transzendentzia ematen zaio etengabeko trebakuntzan eta herritarrak lan-munduan sartzeko garaian.

Bruselako Hezkuntza kontseiluak (2003) ere formazioari garrantzia ematen dio eta gizarte mailako eta garrantzia handiko bi ildo nabarmentzen ditu:

- Eskola goiz uzten duten gazte kopurua gutxitzea.
- Etengabeko hezkuntzan inplikazioa handitzea. Orientazio gisa, lan munduan dauden helduen %12,5ek izan behar dute Estatu kideetan birziklatzeko ahalegina egiten dutenak.

Herrialdeek trebakuntzan eta langileen gaitasunean ahaleginak koordinatzeko asmoa dute.

Maastricheko komunikatuan (2004) Hezkuntza ministroek lanbide heziketari garrantzi handia eman zioten, lan mundutik baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonen erantzuna ematean, hezkuntza erakundeetan ikasteko ekimenak eta inguruneak ugaritzea, baita hezitzaileen gaitasuna garatzea ere.

Azkenik, Berger-eko konferentzian (2005) nabarmentzen da garrantzitsua dela goi mailako hezkuntzaren Europako guneko kualifikazioak eta bizi osoko ikasketa bateragarriak izatea.

Ikus dezakegun bezala, etengabeko trebakuntzaren inguruan kontinenteko hainbat herrialdek garatutako ekimenak aditzera ematen digu bizi osoko hezkuntza, alor eta etapa ezberdinak kontuan hartuz,



hurrengo urteetarako Europako Hezkuntzaren erronkarik handienetako bat dela.

5.-HEZKUNTZAKO ETA EUSKAL HERRIRAKO CURRICULUMAREN ERAGILE DINAMIZATZAILEAK

5.1.-Gizarteratzeko eragile nagusiak

Hezkuntza prozesuak ez dira ikasgelan bakarrik garatzen. Eskolak bakarrik ez diezaioke aurre egin gizarteak bere gain hartu beharreko erronkei. Ikastetxeek gainerako gizarte eragileen laguntza behar dute elkarrekin ikasleen trebakuntza integralari aurre egiteko. Zer dira eskolaren lana bultzatu eta horretan lagundu behar duten hezkuntza instituzioak? Irakaslea, ikaslea, familia eta, bere neurrian, gizarte erakunde, erakunde ekonomiko eta kulturalak dira belaunaldi berrien hezkuntza eta formazioa bezalako funtzio garrantzitsuan eta transzendentalean ardura hartu behar dutenak.

Derrigorrezko hezkuntzan **irakasleak duen rola** eztabaida askoren arrazoi izan da. Irakaslea bere gaia azaltzen duen profesionala baino zerbait gehiago da: Hezitzailea ere bada. Irakasleak irakasteaz gain, beste alor batzuk ere landu egin behar ditu, hala nola, afektiboa, jokabideak, harremana eta elkarbizitza. Hala ikaslearen izaera orokorrean garatzeko. Gaur egun, rolekin eta betebeharrekin zerikusia duten ikerketek irakaslearen jarduera profesionala mugatu egiten dute zenbait eremutan:

- Irakaslea da: ezagutza zientifikoak (materiak...), prozedurak, eskumenak, etab. irakatsi behar ditu.
- Hezitzailea da: ikaslearen nortasunaren alderdi formatiboak eta orientatzaileak indartu behar ditu (baloreak, jarrerak, ohiturak...).



- Lan-talde bateko kide da: modu koordinatuan lan egiten du eta ikastetxeko beste profesionalekin kooperatzen du, baita ikaslearen heziketan inplikaturako beste espezialista batzuekin ere.
- Kudeatzailea da: nahiz eta beste lanbideetan paradoxikoa izan, irakasleak erakunde berean rol ezberdinak ditu. Hau da, aldi berean ikasgela kudeatu, taldeak koordinatu eta zentroa zuzendu dezake.
- Hezkuntza komunitate bateko kide da: gurasoekin eta ikasleekin batera bere egitekoa hezkuntza erakundearen proiektua bultzatu eta sustatzea da.

Irakasleak bost rol horiek hartu behar ditu erabat. Ezagutzak transmititzea da, oraindik, gure hezkuntza zentroetako irakasle gehienek egiteko nagusia.

Prozesu curricularretako beste zutabe garrantzitsu bat **ikaslea** da. Herritarrak gizarteko zenbait rol betetzeko eta bere komunitatean erabat integratzeko ongi hezia izan behar du. Hezkuntza sistemak ematen dion formazioaren onuradun nagusia da. Mende hasiera honetako ikaslea aurreko belaunaldiekiko desberdina da. Gure bizimoduak aldaketa garrantzitsuak izan ditu. Gaur egun eskolaz kanpoko jardueratan aritzen den haurra gutxiago jolasten da kalean bere lagunekin, denbora gehiago pasatzen du telebistaren aurrean edo teknologia berriekin jolasean (ordenagailuak, sakelako telefonoak, bideo-jolasak...) Txikien bizitza eskolaren inguruan antolatzen da, eta, neurri txikiagoan, familiaren inguruan. Ikasgelak adinka antolatzea eta eskolaz kanpoko jarduerak (kirola, ingelesa,...) haurra bere adineko haurrekin egotera behartzen du, eta beste adinetako lagunekin harremanak izateko aukera mugatu egiten du (Moreno y Delval, Gimeno, J. 2003:58-n).

Nerabezaroa beste garaiak baino etapa luzeagoa eta zailagoa bihurtzen da (betiko nerabezaroa) eta lan-mundurako trantsizio konplexuak baldintzatzen du. Garai honetako erronkei aurre egiteak,



gazteari etorkizun oparo batez gozatzeko aukera emango dio. Gizartearen eskakizunetara ez egokitzeak (eskola porrota, bere kideekiko harremanak...), ordea, bazterketaren bide zailetik eraman dezake. Azken batean, delituzko jarrerak eta gizartearen aurkakoak (lapurreta txikiak, eskolara ez joatea, drogak kontsumitzea...) gazteak bizi diren komunitateak dituen ikusmira eta eskakizunetara ez egokitu izana adierazten du.

Ikaslea gizarteratzeko oinarrizko zutabea **familia** da. Honek, bere seme-alaben heziketan jarrera aktiboa eta inplikaturik hartu behar du. Gurasoek zenbait konpromiso hartu behar dituzte hezkuntzan lider izateko. Álvarez Fernández, M.-ren (1988) esanetan gurasoek eskolan izan dezaketen parte hartzea bi mailatan oinarritzen da: bata instrukzioa, edukien azalpenean parte hartzea (ikasgela bisitatuko duten eta lanbide batean espezialistak diren gurasoak) eta bestetik, heziketa maila (zentroa kudeatzeko ekimenak proposatuz, diziplina ereduaz aztertuz, etab.) Azken alor horretan protagonismo handia dute. Elkarbizitza eta baloreak bezalako alderdiak, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera kulturalak, zentroko zerbitzuen kudeaketa (autobusa, jangela...), komunitatearekiko harremanak, etab. bezalako gauzetan gurasoek ekarpen handiak egin ditzakete.

Gurasoek Québec-eko (Kanada) eskolatan duten parte hartzeari buruzko Foisy, G.-k egindako ikerketa baten arabera (Martin, Q.-n, 1987), eskolatan gutxien parte hartzen dutenen tipologia honela zehaztu daiteke: eskola kontseilurako inoiz aukeratu ez dituzten pertsonak, zentroaren arazoei buruzko informazio gutxi dutenak, maila soziokultural eta sozioekonomikoa oso txikia dutenak, eskola bigarren faktorea (familiaren ondoren) dela neurri txikiagoan pentsatzen dutenak eta funtzio horietan hainbesteko ardura ez dutela uste dutenak.

Gurasoen heziketa estiloak ere eragin handia du seme-alabengan. Ardura gutxiko jarrerak hartzea (*laissez faire*), muga garbiak ez jartzea



eta bere seme-alaben hezkuntza garapena gutxi begiratzeak askotan ez dute esperientzia onik ematen. Bestetik, heziketa zorrotzegi batek ere baditu arriskuak. Gatazkak konpontzeko gaitasun eskasa edukitzea edo ikasitako jarrera erasokorrak dira malgua ez den familia heziketaren adierazleak.

Azkenik, **Administrazioa eta instantzia politikoak** aipatu behar ditugu, horiek baitira curriculuma diseinatzen eta perfilatzen dituzten erakundeak. Curriculumaren ildo nagusien, hezkuntza sistemaren antolaketaren, irakasleen espezialitatearen, garapenaren ikuskaritzaren eta kontrolaren, egiaztagirien homologazioaren, emaitzen ebaluaziorako politikaren, curriculumeko materialen ekoizpenerako ildoen, eta abarren definizio funtzioa egiten dute.

5.2.- Eskola eta gizartearen arteko kooperazioa

Eskolak, erakunde gisa, erakunde irekia, jasotzeko prest dagoena eta gizarteko gainerako erakundeekin elkarlanean arituko dena izan behar du. Hezkuntza antolakuntzak ezin die berak bakarrik aurre egin gizarteak sortzen dituen arazo ugariari eta zailei.

Erakunde ekonomikoek, kulturalak, hezitzaileek, etab. ahaleginak bateratu eta estrategiak koordinatu behar dituzte helburu nagusia lortzeko: kide diren komunitatearen garapena. Garapen komunitarioaren kontzeptuak, beraz, garrantzia berezia hartzen du bizi garen gizartean. Ander, E.-k (1987:51) termino hau definitzen duenean honakoa esaten du: “Komunitatearen garapena espresioa nazioarteko erabileran sartu da gizartearen baldintza sozialak, kulturalak eta ekonomikoak hobetzeko erakunde ezberdinen ahaleginak elkartzen diren prozesuak izendatzeko”.

Ikastetxeak eta irakasleak ez dira gizarteak dituen kalte guztien arduradun bakarrak. Baina, noski, hezkuntza sistemak, gizarte erakunde



gisa, arduraren zati bat berea dela onartu behar du. Horregatik, ikastetxeek gizarteko gainerako erakundeen laguntza behar dute.

Hezkuntza zentroen irekiera eta beste erakundeekin kolaborazioa ezinbestekoa da lan prebentiboa egiteko eta behar sozialei erantzuteko. Martin, Q.-k (1989) komunitatearen eta hezkuntza zentroaren arteko harremanean laguntzen duten zenbait faktore deskribatzen ditu. Horien artean oinarritzakoak diren lau bereizten ditu:

- Didaktiko-antolaketakoak: inguru berriak eta irakaskuntza eta ikasketarako guneak (eguneko eta gaueko ordutegiak, ikasgelen ingurua, informatikakoak, enpresak...), eskolaren lanaren eta komunitatearen heziketa ekintzaren arteko koherentzia handiagoa bilatzea (ezagutza eta formazioa ematen duten erakunde gehiago ezagutzea eta haiekin koordinatzea), ohiko curriculumean jasotzen ez diren ikaslearen izaerako alderdiak kontuan hartzea (komunitateko erakundeak eragile sozializatzaile gisa)
- Faktore psikopedagogikoak: oinarri soziokulturala duen eskola porrotaren aurkako borroka (baztertzeko arriskuan dauden ikasleei laguntzea, lan munduan sartzeko CIP laguntza, etab.) eta bizitza osoko hezkuntzarako gizarteak duen joera (gurasoentzako formazioa jarduerak, teknikarientzako ikastaro osagarriak, hezkuntza zentro berean profesionalak edo beste kolektiboak biltzea...)
- Faktore ekonomikoak: eskolako eraikina ahalik eta gehien aprobetxatzea (patioak erabiltzea, gimnasioa, informatika gela, etab. eskolaz kanpoko ordutegian zein oporretan) eta beste gizarte erakunde batzuk eskatutako instalazioen gehikuntza.
- Faktore demografikoak: Jaiotze tasaren murrizpenaren ondorioz ikasle gutxi dituzten zentroetako gune libreak aprobetxatzeko aukera dago.



Faktore horiek perspektiba ezberdinetatik kooperaziorako joera areagotu dute. Egileak honako modu hauek proposatzen ditu ikastetxea komunitateari irekitzeko:

- Eskola beste erabiltzaile eta erakundeekin partekatzen duten ikastetxeak
- Udalerriak dituen hezkuntza baliabideak erabiltzen dituzten zentroak (liburutegia, enpresak, erakundeak, beste formazio zentroak...)
- Bi norabideetako zentroak: aurreko bi parte-hartze moduak erabiltzen ditu.
- Erabilera partekatuko zenbait instalakuntza dituzten zentroak (aretoa, informatika gela, gimnasioa,...)
- Hezkuntza-komunitario konplexu handiak: gune handiko zentroak eta zerbitzu eta instalazio ugari dituztenak (patioak, hitzaldi aretoak, ekipamenduak, ingurune pribilegiatua...)
- Hezkuntza-komunitarioa sarea: Hezkuntza eta tokiko gizarte zerbitzuak konbinatzea. Zerbitzu horiek ikastetxeetako ikasleei ezagutza emateko parte hartzen dute. Estrategia horrek komunitateko baliabideen planifikazio sistematikoa behar du.

Komunitatearen garapenak zenbait estrategia eta proiektu martxan jartzea bultzatzen du (prebentzioa, garapen kulturala, arazoei aurre egitea...), horren helburua gizarte sektore ezberdinen arteko laguntza eta kooperazioa sustatzea da. Erakundeen arteko parte-hartzea eta kooperazioa komunitatearen garapenerako oinarrizko zutabe bihurtzen dira. Erakundeen eta gizarte eragileen ahalegin bateratua lurralde mailako erakunde berezien bidez koordinatu behar dira. Erakundeen arteko elkarlanak baliabideen zentzuzko planifikazioa ahalbidetuko du, gizarte arazoei aurre egiteko komunitatearen ekintzetan eraginkortasuna lortzen laguntzeko asmoarekin. Azken finean, helburu nagusitzat garapen soziala duten sarean egindako lanarekin zerikusia duten estrategiez ari gara.



6.-IKASKETAREN PERSPEKTIBA PSIKOLOGIKOA

Curriculumak ez du zentzurik ikasketarik ez badago. Curriculum proposamena diseinatzeko garaian, ikaslearen trebakuntza gehitzeko eta irakaskuntza estrategia egokienak hartzeko, garunean gertatzen diren aldaketa mentalak hartu behar dira kontuan. Horregatik hezkuntza prozesuak azaltzeko garaian eduki zientifiko gehien duten teoriak erabili behar ditugu.

Trinkotutako korrante psikologikoen eta gaur egun prestigio handiena dutenen artean teoria kognitiboak aipatu behar dira. Joera konstruktibisten adar ezberdinek bat egiten dute jokaera osotasun bat dela esatean, ikasketa esanguratsua aipatzean, prozesu mentalen barruko berrantolaketan eta ezagutzarako ikasteko nahian. Bultzatzaile garrantzitsuenetako batzuk honakoak dira: Paget, Ausubel, Bruner eta Vygotsky.

6.1.-Konstruktibismoa eta J. Piageten teoria

Jean Piaget da konstruktibismoaren adierazle nagusienetako bat. Bere teoriaren arabera alderdi kognitiboak joerakoen gainetik daude, eta ezagutzaren eraikuntzan sortutako prozesu mentalen garrantzia nabarmentzen du. Korrante psikologiko horrek oinarritzko hiru kontzeptu ditu zutabe gisa:

- Konstruktibismo exogenoa: Honen arabera ezagutza barneratzea kanpoko munduaren egiturak berregitean datza. Horren arabera inguruak eragin handia du ezagutzaren eraikuntzan (esperientziak, irakaskuntza eta hainbat eredu jasotzea)
- Konstruktibismo endogenoa: Jarduera kognositiboen koordinazioa nabarmentzen du. Egitura mentalak konplexutasun gutxiagoko beste



batzuetatik datoz, ez ditugu inguruko informaziotik zuzenean jasotzen. Ezagutza esperientzia, irakaskuntza edo trukatze kulturalen bidez jasotzen da.

-Konstruktibismo dialektikoaren ustez, ezagutza pertsonak bere inguruarekin duen interakziotik dator. Hau da, aurreko bi joerak bateratzen ditu.

Intelligentziaren garapena organismoaren eta inguruaren arteko trukatzeak berriz orekatzeko duen joeraren bidez egiten da. Inteligentzia da egokitzerik onena. Beraz, bakoitzak bere jarduerara ezagutzak barneratzea, eta ikasitako konpetentzietara eskema mentalak egokitzea eskatzen du. Inteligentzia ez da forma endogenoa duen egitura bat, subjektuak egindako formak eskatzen dituen egituratze jarduera eta hauek esperientzietatik jasotako informazioarekin etengabe egokitzea baizik. Beraz, garuneko egituretan informazioa barneratuz eta mailakaturik garatzen da (hasieran oinarrizko ikasketak garatuz, eta ondoren, konpetentzia konplexuagoak)

Piageten teorian ekintzaren papera oinarrizkoa da. Objektu bat ezagutzea ekitea da, bere gainean jardutea eta eraldatutako ekintzekin duen harreman mekanismoak ulertzeko eraldatzea. Benetakoa garuneko egiturei barneratzea da. Autorearentzat, heztea subjektua gizarte ingurunera egokitzea da, hau da, indibiduoaren konstituzio psikobiologikoa errealitate kolektiboen multzoaren arabera eraldatzea. Kontzientzia arruntak balioa emate dio horri. Norbera heztea (intelligentziaren teoria opertorioan) ezagutza norberak lortzen ikastea da.

6.2.-Aurkikuntzaren bidezko ikaskuntza: J.Bruner



Bruneren ustez, jokabidea pertsonaren ezagueran oinarritzen da. Pertsonak ingurutik informazio berriak jasotzen ditu, eta aurretik zituen ezaguerekin alderatzen ditu. Ikasteak hiru prozesu barne hartzen ditu:

- Informazio berria hartzea.
- Ezaguerak errealitate zehatz batean duen egokitasuna egiaztatzea (alderatzeko eta balioztatzekeo prozesua).
- Ezaguerak aldatzea zeregin berrietan erabiltzeko (aurreko jarrera aldatzea).

Bruneren aburuz, heziketa prozesu bat da, eta prozesu horretan pertsonak objektuak maneiatzen, informazioak baliatzen, sinboloak sinkronizatzen eta erabiltzen, eta abarretan ikasten dute. Adimenaren garapena kulturaren elementuak barneratzea da. Kontzeptu hori pertsonak munduaz dituen irudikapenei dagokie. Pertsona, heziketaren bidez, hain zuzen, irudikapen horiek bereganatuz doa.

Ikastetxea pertsonaren adimen gaitasunak lantzeko erakundea da. Horregatik, honako elementu garrantzitsu hauek, besteak beste, sustatu eta indartu behar ditu:

- Arazoak konpontzeko gaitasuna.
- Hipotesiak eta usteak planteatzeko gaitasuna.
- Errealitate berriei, askotariko arazoei aurre egiteko autonomia eta motibazioa, arazo horiek konpontzen saiatzearren.
- Garrantzitsua dena identifikatzea, kontzeptuak egituratzea, eta gogoetaren bidezko pentsamenduaren sustapena.
- Zehaztasun intelektuala.
- Komunitateko bizitzan parte hartzea.

Brunerek dioenez, hezkuntzaren oinarritzko galdera da nola lortu ingurune bat zerbait nolabaiteko segurtasunarekin ikasteko eta hainbat egoeratan erabiltzen jakiteko. Era berean, alternatibak esploratzearen



balioa nabarmentzen du. Hezten den pertsonak ikertzeko eta aurkitzeko gaitasuna izan behar du. Esplorazioaren bidez, ikasleak gai jakin bati buruz ikasi ez ezik, ikasten ikasi ere egiten du.

6.3.-Harreraren bidezko ikaskuntza esanguratsua: Ausubel

Egileak azalpenezko hezkuntza era antolatuan eta esanguratsuan erabiltzea aldeztu du. Informazioa ahoz aurkeztea (ahozko azalpena...) hezkuntzan gutxien balioesten diren metodoetako bat da. Ikaskuntza esanguratsuaren oinarria da kontzeptuak eta printzipioak jasotzea, ideia berriak ikasleak aurretik dituen ezaguerekin alderatuz. Hau da, material berriak oroimenean den informazioa zabaltu, aldatu edo landu egiten du. Ausubelen ereduaren dedukzio bidezko estrategia bultzatzen da. Estrategia horretan, lehenik, eduki orokorrak irakasten dira, eta, gero, gaiari loturiko ezaguera zehatzetan jartzen da arreta. Ereduaren xedea da kontzeptu sareak zabaltzea, kontzeptuen artean loturak ezarriz.

Edukien aurkezpenaren hasieran azaltzen diren gaikako antolatzaileek eta enuntziatu orokorrek arreta funtsezko kontzeptuetara eramaten dute, ideien arteko loturak nabarmentzen dituzte, eta material berria ikasleen kontzeptuzko abiapuntuari lotzen diote. Auresuposizioa da ikasleen ezagutzazko egiturak hierarkia batean antolaturik daudela, eta nozio orokorrek zehatzagoak diren nozioak barne hartzen dituztela. Gaikako antolatzaileek hierarkiako goi maileri buruzko informazioa ematen dute, eta bi antolatzaile mota daude: azalpenezkoak edo konparaziozkoak.

Ausubel-en ikerketek erakutsi dute gaikako antolatzaileak erabiltzeak pentsamendu abstraktuari eragiten diola, eta kontzeptuen arteko loturak sustatzen dituela. Hala ere, beste ikerketa batzuek kontrako emaitzak aurkeztu dituztela nabarmendu behar da.



6.4.-L.Vygotsky-ren teoria soziokulturala

Vygotskyren arabera, gizakiek ingurunea beren helburuetarako eraldatzeko trebetasuna dute. Moldatzeko gaitasun horrek, hain zuzen, bereizten ditu gizakiak beheragoko izaki bizidunengandik. Egile horren esanetan, gizarte esangura duten jardueren eragina funtsezkoa da. Haren ustez, gizarte ingurunea oinarrizkoa da, ikaskuntza gizarte faktoreen eta faktore pertsonalen arteko integrazioaren bidez gertatzen delako. Inguruneak kognizioari eragiten dio kultura tresna edo objektuen bidez (ohiturak, sinesmenak...), hizkuntzaren bidez, gizarte erakundearen bidez (eskola, eliza...), eta abarren bidez. Kultura tresnak gizarte erlazioetan erabiltzearen, barneratzearen eta buruan eraldatzearen emaitza da ezagutzazko aldaketa. Egileak konstruktibismo dialektikoa aldeztu du, eta pertsonak ingurunearekin duten elkarreragina azpimarratu du. Vygotsky “Garapen Proximaleko Zona” (GPZ) kontzeptuaren aitzindaria da. Kontzeptu hori heldutasun maila errearen eta garapen maila posiblearen arteko distantziari dagokio, arazoak ebazteko zehaztuta. GPZk jardueraren kolektiboaren ideia marxista barne hartzen du. Jarduera horretan, gehiago dakitenek —edo trebeagoak direnek— beren ezagutzak eta trebetasunak ikasgabeagoekin partekatzen dituzte. Hezitzaileak izan behar duen rola ikaslearen gidariarena da, batzuek zein besteek kultura tresnak partekatzen dituztelako. Hezitzailearen eta ikaslearen arteko elkarreraginaren ondorioz, azken horrek, sarritan, bere iritziak eta planteamenduak aldatzen ditu.

6.5.-Askotariko adimenen teoria: H. Gardner

Gardnerek laurogeita hamarreko hamarkada arte onartuta zeuden ikaskuntzaren postulatu zenbait zalantzan jarri zituen. Adimentsua izateak ez dakar berekin adimen koefiziente (AK) altua izatea. Badira ere



eguneroko bizitzan funtsezkoak diren beste gaitasun batzuk. Gardner eta haren taldea, denetariko subjektuen (autistak, ikasteko arazoak zituztenak, haur prodijioak, eta abar) ezaugarri kognitiboak aztertzean, ohartu ziren adimen testen emaitzak oso irregularrak eta funts gutxikoak direla. Ikerketa horietatik ondorioztatu zuten hainbat adimen mota dagoela, eta zazpi motatan sailkatu zituzten:

-Hizkuntzazko adimena: esaterako, poeten eta abarren gaitasuna da (hitzak, kontzeptuak, esaldian, sinonimoak, eta abar kateatzen trebeak dira).

-Logikazko eta matematikazko adimena: problema eta eragiketa logikoak ebaztea. Piageten aburuz, horixe da egiazko adimena.

-Espaziozko adimena: nor bere buru mapa eratzea eta erabiltzea (ingeniariek, zirujauak, eraikitzaileak, pintorek, eskultoreak, eta abarrek gaitasun horiek garatu izan dituzte).

-Musikazko adimena: entzutea, interpretatzea, sortzea, notak konbinatzea, eta abar.

-Gorputzezko adimena: gorputzaren bidez, adierazpenak sortzea, esku trebetasunak (dantzariak, atletak, zirujauak, eskulangileak...), eta abar.

-Pertsona arteko adimena: beste pertsona batzuk ulertzea, besteak zerk motibatzen dituen, haiekin nola lan egin ulertzea, besteek nola jokutzen duten jakitea, eta abar. Politikariak, irakasleak, medikuak, erlijiosoak, eta abar adibide onak dira.

-Pertsona barruko adimena: nor bere baitan eredu arrazoizko, egiazko eta erreala sortzeko nahiz eredu hori bizitzan moldatzeko erabiltzeko gaitasuna.

Irakaskuntzaren eta, oro har, hezkuntzaren xedea da adimen mota horiek garatzea eta konbinatzea, subjektuaren bokaziozko helburuak, interesak, erronkak eta zaletasunak lortzearen.



Psikologiaren ikuskera horrek ondorio sakonak dakartza hezkuntzaren eta ikaskuntzaren alorrera:

- Adimen koefizientea (AK) neurtzen duten testak eztabaidagarriak dira, bederen, ikaslearen gaitasun orokorra balioztatzerakoan.
- Ikasle bakoitza desberdina da, eta banakako arreta behar du.
- Ikasle bakoitza zientzietako eta jakintzako alor jakin bati ekiteko gai da. Hezitzailearen zeregina ikasle horren adimenaren profila ezagutzea izango da, eta, ondoren, haren bereizgarrietarako egokiak diren ikaskuntza aukerak ematea.
- Zaila eta konplexua da ikasleak beren gaitasunen arabera sailkatzea.

Teoria horrek didaktikaren arloko ondorio eta erronka berriak dakartza, eta irakasleek eta hezkuntzako profesionalek erantzun egin beharko diete.

6.6.-Emoziozko adimena: Daniel Goleman

Golemanek (1995), bere esperimenduetan, harriduraz ikusi zuen pertsona batzuk, nahiz eta adimen koefiziente altua (AK) duten, ez dakitela nola jokatu egoera konplexuetan, eta koefiziente txikiagoa duten beste pertsona batzuk, aldiz, era erabakitzailean eta eraginkorrean jokatzen dutela. Goleman ez dago ados adimen koefizientea (AK) pertsona bakoitzarengan sortzetikoa dela dioen ideiarekin, eta pentsatzen du badirela beste dohain batzuk, hala nola iraunkortasuna, automotibazioa, gogo bizia, autokontrola..., zuzenean parte hartzen dutenak bizitzako egoera konplexuak gainditzeko jokabideen ikaskuntzan.

Emoziozko adimenak ahalbidetzen du berezko bulkadak kontrolatzea, hurkoek sentitzen dutena ulertzea, besteekiko harremanak maneiatzea, era egokian eta errespetuz kritikatzeko eta gaitzestea, eta



abar. Emozioak zein haiek zentzuz erabiltzea ezinbestekoak dira gizartean elkarrekin bizitzeko. Haurtzaroan eta nerabezaroan ikasitako emoziozko ereduek (eskolan, familian, eta abarretan) oso eragin handia dute besteekin bizitzerakoan. Horregatik, emozioak era adimentsuan maneiatzea bizitzan behar bezala moldatzeko bermea da.

Golemanen aburuz, eskolak zoriaren mende uzten du ikasleen emoziozko hezkuntza. Pertsonok, maiz, kontrolatu gabeko bulkadak izaten ditugu, eta haiek hezi egin behar dira. Egile horren arabera, denok bi adimen ditugu: pentsatzekoa (arrazionala) eta sentitzekoa (emoziozkoa). Biek elkarreraginean jarduten dute, eta gure prozesu mentalak eratzen dituzte. Grina eta pentsamendu indartsuak daudenean, oreka hausten da, eta emozioek arrazionaltasuna gainditzen dute. Horregatik, adimenaren bi alderdiak hezi behar dira: alderdi logikoa (arrazoiketa, argudiatzea...) eta emozioen alderdia (beldurra, haserrea, harridura, goibeltasuna, poza, maitasuna, jelsia, ahalkea...).

Golemanek dio pertsona bakoitzaren “barruko ni”ak era egokian hezi behar duela gizartean bizitzeko baliagarriak diren emozio eta sentimenduen logika.

7.-IRAKASKUNTZA: ZENBAIT ZEHAZTASUN OROKOR

Irakaskuntzaren teoriak ez digute soilik ikaslearen ikasteko eraz informatzen. Hezkuntzan esku hartzeko eredua diseinatzean baliagarriak diren ildo orokor batzuk ere ematen dizkigute. Psikologiaren joera egiaztatuenean nabarmen baldintzatzen dituzte ikasgelan garatu beharreko eredu didaktikoak eta hezkuntzazko prozesuak.

Irakaskuntzari eta ikaskuntzari loturiko jarduerak diseinatzeko, abiapuntua aintzat hartu behar dugu. Ikasleak aurretik zituen ezaguerekin



zehazten dituzte hezkuntzazko prozesua hasi baino lehen gaitasunen aldetik dituen baliabideak. Irakaslearen lana funtsezkoa da ikasleak aurretik dakienaren eta ikasgelan ikasi beharreko trebetasun berrien arteko zubi kognitiboak eraikitze aldera. Hala, bada, **diagnostikoa eta hasierako balioztapena** ezinbesteko elementu bihurtzen dira ikaslearen beharrak identifikatzeko.

Mckillipek (Pérez, M.P. 1994:21-en) honela definitu zuen beharraren kontzeptua: “bete daitezkeen gabezia zehatzak dituen pertsona bati edo talde bati buruzko balio iritzi bat”. Definizio horretan lau elementu bereizi behar ditugu:

- Beharra atzemateko balioak aipatu behar dira. Hezkuntzaren gaineko ikuspegi desberdinak dituzten irakasleek behar desberdinak atzeman ditzakete.
- Beharrak aztertzerakoan, garrantzitsua da ikaslearen edo helburu den populazioaren ezaugarriak zehatz-mehatz deskribatu behar dira.
- Arazo bat da espero zena betetzen ez duen emaitza desagokia lortzea.

Zabalzak (1988) hainbat behar mota bereizi zuen hezkuntzan: arau-aginduzko beharra (araua, errendimendu estandarrak, helburuak... ezartzen dituen); sentituriko beharra (ikasleak nahi duenaz duen pertzepzioa); eskaria (pertsona talde batek eskatzen duena); konparaziozko beharra (talde jakin batek ez dituen onurak lortzea); etorkizuneko beharra (etorkizunari begira planteatutakoa). Tipologia horiek oso lagungarriak izan dakizkiguke ikasleak ageri dituen mugei lehentasuna ematerakoan. Hain zuzen ere, ikasleek gabeziei lehentasuna ematerakoan, hauek dira aintzat hartu beharreko aldagaietako batzuk: defizitaren garrantzia; gabeziak iraun duen denbora; zailtasunak dituzten edo arazo baten inguruko berriazko arreta behar duten ikaslearen proportzioa; helburuak lortzeko behar diren baliabideak; konponbideen baliagarritasuna, eta abar.



Labur esanda, ikasleen beharrek irakasleari eskatzen diote menderatutako gaitasunak zein agertutako defizita xeheki aztertzeko. Arlo horretan jasotzen den informazioa erabakigarria da hezkuntzazko esku-hartzeak arrakasta izan dezan.

Ikasleek menderatu behar dituzten **oinarrizko gaitasunak** definitzea, zehaztea, garatzea eta balioztatzea izango dira irakasleek mendearen lehen hamarkadan izango dituzten erronka handietako batzuk. Europako herrialde gehienak batera ahaleaginean ari dira ikasle orok derrigorrezko hezkuntza bukatzean menderatu behar dituen gaitasunak definitzeko. Badirudi “gaitasuna” kontzeptuaren definizioak (ingurune jakin batean arrakastaz aplikaturiko ahalmen edo ezaguera) adostasun zabala lortu duela. Ikaskuntza ezin daiteke “banku erakoa” izan. Ikaslearen ahalmenak eta ezaguerak gauzatzeko, praktikoki garatzeko eta aplikatzeko nozioa zeharo garrantzitsua da ikaslearen beraren prestakuntzan.

Gaitasunei buruzko sailkapen bat baino gehiago egin da. Dokumentu honetan, honako hauei loturiko trebetasunak bultzatzeko xedea duen sailkapena proposatzen dugu: dimentsio kognitiboari (ikaslearen garunean garatzen diren gaitasunak eta prozesu mentalak), zentzu-mugimenezko dimentsioa (psikomotrizitateari, koordinazioari, osasunari... dagozkion alderdiak); dimentsio afektiboari (balioak, nortasunaren alderdi guztiak...); komunikazioari (ahozko hizkuntzaren zein ahozkoa ez den hizkuntzaren elementuak, hainbat adierazpen modalitate...); gizarteratzeari (gizarteko talde eta kolektiboetan integratzeari loturiko gaitasunak); eta ekintzailtzari (bizitzan sortzen diren egoera eta erronka berriei ekitea) loturiko trebetasunak, alegia. Sailkapen honek ikasleak, egoki gizarteratzeko, zer menderatu behar duen zehaztea du helburu.



Edukiak curriculumaren edozein diseinutarako oinarritzko elementuak dira, eta kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukietan sailkaturik daude. Gaitasunak menderatzeko, kontzeptuak eta/edo prozedurak eta/edo jarrerak maneiatu behar dira. Gaur egunean, azken horiek garrantzi handia hartu dute.

Hezkuntzaren oinarritzko helburua ezin da izan informazio pila eskerga ikastea. Gaitasunak menderatzeko sarbidea dira edukiak. Horretarako, beharrezkoa da edukiok hautatzea, sekuentziatzea eta antolatzea, hierarkiazko eta erlaziozko eskemekin bat, ikasleak era esanguratsuan ikas dezan.

Gaietako edukiak hautatzerakoan, oinarritzko irizpide batzuk bete behar dira: edukien garrantzi epistemologikoa (gai bakoitzerako literatura eta informazio iturriak hautatzea); gaiaren ardatz antolatzaileak eta egitura identifikatzea (irakasgaiaren funtsezko oinarriak); ezaguerak eta gaitasunak beste arlo eta egoera batzuetarako transferentzia; ikasleen eboluzio garapenerako egokitasuna; eta emandako informazioen garrantzia, gizartearen aldetik.

Era berean, edukiak ahalik eta ondoena sekuentziatzeko, hainbat irizpide aintzat hartu beharko da, hala nola irakasgaiaren ardatz ideiak identifikatzea, zailtasunak mailakatzea, jarraipena eta progresioa, eduki moten arteko oreka, integrazioa sustatzea, disziplinarrekotasuna, zeharkakotasuna, eta abar. *Edukia* kontzeptuaren barruan sartzeko, irakaskuntzako eta ikaskuntzako prozesuetan gaitasunak garatzeko baldintza bete behar da.

Irakasteko estrategiek lehen aipaturiko irakaskuntzaren teoriei lotuta egon behar dute. Joera kognitiboaren arabera, ikasleak bere



ezaguerak era esanguratsuan eratu behar dituzte. Baieztapen horrekin bat, irakasleak bultzatu beharreko irakaskuntza irizpideek honako hauek aintzat hartuko dituzte: zubi kognitiboak sortzea; gogoeta kritikoa; bereizkuntza mailakatua; kontzeptu barne-hartzaileak; ulermenezko memorizazioa; ikaslearen jarduera, interesak eta beharrak; ingurunearekiko harremanak; gaitasunak transferigarritasuna; erabakiak hartzea; lan autonomoa eta talde lankidetzak; arazoak ebaztea; ikasirikoa hainbat bidetatik komunikatzea, eta abar.

Estrategien funtsezko xedea da irakaskuntzako eta ikaskuntzako prozesua, oro har, era egokian koordinatzea. Bi estrategia talde handi daude:

-Azalpenezko estrategiak: harreraren bidezko ikaskuntzan oinarritzen dira. Ikasleek hartzen dute informazioa irakaslearengandik edo egun diren askotariko aparatu teknologikoetatik (bideoa, ordenagailua, eta abar). Hezitzailearen rola informazio iturriarena da; irakasleak emandako ezagueren hartzaile pasiboa da.

-Estrategia ikertzaileak: ikasleek aurrea hartzen dute ikaskuntzako prozesuan. Hezitzailea gidari eta laguntzaile bihurtzen da. Ikasleak bere jarduera (informazioa bilatzea, askotariko lanak...) era autonomoan edo irakaslearen gidaritzapean garatzen du, zereginaren zailtasunaren arabera. Estrategia mota horri aurkikuntzaren bidezko ikaskuntza deritzo.

Gaitasunak garatzea jomugatzat duen planteamendu berri horrekin, irakaskuntzako eta ikaskuntzako estrategiek garrantzi handia hartzen dute ikastetxeetan aurrera eramaten diren hezkuntzako prozesuetan.

Baliabide eta material curricularrak hezkuntzako prozesuak gauzatzeko baliabide lagungarri bihurtu dira. Horri dagokionez, esan behar da hezkuntzarako materialek inoiz ez bezalako goraldia izan dutela, IKTen ondorioz. Hori dela eta, bai ikasleek bai irakasleek



alfabetatze funtzionala behar dute. Hezkuntzan, teknologiak erabiltzeak ez du helburu izan behar, irakaskuntzari laguntzeko baliabidea baizik, teknologion alde erakargarri zein gabeziekin.

Laguntzarako materialak eta baliabideak irakaskuntza-ikaskuntzaren planteamendu zehatz batean integratu behar dira. Ikaslea gailu horiek erabiltzen jardutea eta protagonista izatea funtsezkoa da. Ikasleak hezkuntzazko prozesuaren funtsezko ardatza izan behar du.

Ikasgelan erabilitako baliabideak honela sailkatuta daude: objektu errealeak; entzun materialak (denetariko grabazioak...); irudi finkoko baliabideak (erretroproiektoreak, gorputz opakuetarako proiektorea, argazkiak, diapositibak...); material grafikoak (azetatoak, kartelak, arbela, errotafolioa, gardenkia...); informazio inprimatua (testuliburuak, aldizkariak...); material mistoak (bideoak, ordenagailua...); eta abar.

Dena dela, gailu horiek sendotu diren arren, ez dago zertan betiko baliabideak ahaztu. Ikastetxea komunitatera zabaltzen bada, curriculum garatzeko balio handikoak diren komunitateko baliabideak (ikasketa komunitateak...) erabil daitezke.

Espaziozko eta denborazko dimentsioa beste funtsezko elementu bat da irakaskuntza-ikaskuntzaren prozesuak antolatzen. Ikasgelan espazioak eta denborak kudeatzeak berekin erabaki garrantzitsuak hartzea dakar. Curriculumaren gaineko ikuskera globalizatua, disziplinar-tekoa edo disziplinakoa izateak erabat desberdinak diren interpretazioak sor ditzake espazioaren eta denboraren aldetik.



Oro har, ikastetxeko espazioak hainbat dekreturen bidez araututa daude, segurtasun neurri eta baldintzei, higienerari, aireztapenari, argiztapenari eta hots kutsadurari dagokienez. Ikasgelako espazioaren diseinuan erabiltzen diren irizpideen artean, nabarmendu behar dira ikaslearen adina, irakasgaia eta, praktikoa denarekin batera, motibatzailea, atsegina eta estetikoa dena bultzatzea. Irizpidetzat hartu behar da, oro har, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleak espazio edo ikasgela berean mantentzea; gero, hainbat espazio – ikastetxearen barruan zein kanpoan– erabiltzeko joerara aldatu beharko da.

Denbora kudeatzeari dagokionez, eskolako nekeari buruzko ikerketak direla medio, irakasleek baliabide hori era arrazoizko eta orekatuan erabili beharko dute. Irakasgaietako denborazko sekuentziak ikasleen aldi kronobiologikoen arabera banatzeko irizpideak definitzea funtsezkoa da ikasleok ikasgelan duten errendimendurako.

Ikasleak taldekatzea, sarritan, elementu eztabaida-sortzailea izaten da. Irakasle batek ikasle bakoitza talde batean jartzeko baliatzen dituen arrazoiek ondorio pedagogiko garrantzitsuak dituzte. Era okerrean “homogeneo” deritzen taldeek, talde heterogeneoek (dibertsitatea sustatzen dute), ikasleen interesen arabera taldeek, eta abarrek curriculum ezkutuari loturiko ondorioak agerian uzten dituzte. Irakasleek ikasleen nortasunari eta izaerari buruzko informazioa bildu behar du: zer rol jokatzen dituzten; lidergoa, jarraitzaileak eta baztertuak, zereginak egiteko era, gatazkak eta arazoak ebazteko erak, eta abar. Talde lana da ikasleek zein irakasleek hezkuntzako prozesuak aurrera eramateko gehien balioesten dituzten estrategietako bat.

Ikaskuntza balioztatzearen gaia erakargarria bezain konplexua da. Balioztapena ez da bakarrik ikasleak lortutako ikaskuntzak neurtzea.



Irakaskuntza-ikaskuntzaren prozesuei, orientazioari, berriztapenari eta hobekuntzari loturiko ondorioak ditu. Derrigorrezko hezkuntzan, irakaskuntzen balioztapenak batez ere izan behar du balioztapen diagnostikoa (abiapuntuak balioztatzen dira), balioztapen hezigarria (hezkuntzazko prozesua hobetzeari eta perfektionatzeari lotua), bildumazko balioztapena (beharrak eta helburuak betetzen dituen), balioztapen holistikoa (globalizatzailea eta konprentsiboa), balioztapen zientifikoa (zehatza eta objektiboa) eta metabalioztatzailea (balioztapenaren beraren kalitatea egiaztatzeko eta ziurtatzeko).

Dibertsitatean jarritako arreta eta ikasleari emandako orientazioa oso garrantzitsuak dira gaur egun. Bakoitzaren gaitasunak, gaitasun mailak eta ikasteko erritmoak direla medio, ikastetxeetan desberdintasuna errespetatzeko tresnak eta estrategiak baliatu behar dira. Gaur egun, DBHko ikasgeletan den heterogeneotasun handia bereziki garrantzitsua da. Ikasgela berean badira oso maila akademiko eta interes desberdinak dituzten ikasleak. Ikasle bikainak eta irakasgaiak gainditzeko beharrezko gaitasunak ez dituzten beste ikasle batzuk batera egoten dira. Ikaslearen gaitasunen araberako ibilbide bereizien (batxilergoak, LHIK, lanbide moduluak, gizarte bermea...) gai polemikoak (Hezkuntzaren Kalitaterako Lege Organikoak erraztua) irakasle askoren gogoan dirau.

Era berean, gaindohatuek ikasgeletan bizi duten egoera ere aintzat hartu behar da. Haien gaitasunei buruzko diagnostiko egokia ez izateagatik aspertu egiten diren ikasleak dira, eta, jakina, horrela ez dituzten beren ahalmen guztiak nortasuna erabat garatzeko.

Curriculum orientazioko jarduerak (egokitzapenak...) –ikasleei laguntza, bermea eta aholkua emateko– funtsezkoak dira hezkuntzako derrigorrezko etapen curriculumean.



8.-EUSKAL CURRICULUMA, HEZKUNTZAREN KALITATEA ETA ZUZENTASUNA

8.1.-Kalitatearen nozioa

Hezkuntzaren kalitatea ezin da bakarrik izan errendimendu akademikoko estandar batzuk lortzea. Hezkuntza eta heziketa integrala eskolatze hutsa edo ezagueretan maila handia lortzea baino zerbait gehiago dira. Hainbat arlotako ikaskuntzek (arlotu pertsonala, afektibitatearen arloa, arlo moral, etikoa, harremanen arloa), eta, oro har, ikaslea bere gizarte ingurunean integrazteari lotutako irakaskuntzek ere beren tokia izan behar dute derrigorrezko hezkuntzan.

Hezkuntzaren kalitatea ikasgelan egiten diren ikaskuntzako prozesuei estu loturik dago. Curriculum, beraz, ikasgelan abiarazitako esperientzien funtsezko ardatza da. Wilson-en (1992:34) esanetan, hezkuntzaren kalitatea honako prozesu hau da: “ikasle bakoitzarentzako curriculum egokiena planifikatzeko, garatzeko eta balioztatze prozesua, ikasten ari diren askotariko ikasleen ingurunean”. Definizio horretan bada elementu anbiguo bat, “curriculum egokiena” kontzeptua, hain zuzen. Egileak, jakina, zehazten du gizarte bakoitzak, betiere, kulturaren, zientziaren eta ikasleen garapen pertsonalaren bere ikuskera duela. Komunitate bakoitzak, beraz, bere interesetarako zein ingurune hurbil eta errealerako egokienak diren kalitate adierazleak ezarri behar ditu.

Arlo honetan aditu direnek kontzeptu hau honela definitu eta kalifikatzen dute:

- Polifazetiko eta zalantzarria (OCDE, De La Orden, Berry).
- Curriculum egokienaren aspektuetan zentratua (Wilson).
- Gizartearen eta bezeroaren ikusmira asebetetzea (Roure, Mortimore, Schargel, Galgano).



- Salbuespena, perfekzioa, kostu-balio eta helburu batera lotzeraren arteko erlazioa (Harvey y Green, Deming, López Rupérez...).
- Gizartearen helburuekin erlazioa (UNESCO).
- Integritate, coherentzia eta efikazia (Escuela Asturiana de Estudios Hispánicos).
- Kalitatea eta ideologia (Marchesi eta Martín).
- Ikasleen aurrerapena (Mortimore).

Nahiz eta kalitate adierazleak esplizituki adieraztea gai eztabaida-sortzailea den, dudarik gabe, curriculum aldaera batzuek beste batzuek baino hobeki islatzen dute “hezkuntza ona”. Hurrengo atalean horretaz arduratuko gara.

8.2.-Kalitate paradigmaren elementu gakoak

Ikastetxe guztien kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko erabilgarri liratekeen aldagai sorta jakinik ez dago. Ikerketa bakoitzak arrakasta duten ikastetxeen ezaugarriei buruzko zerrendak eskaini izan ditu, eta hauek, batzuetan, beste ikerketa batzuekin kontraesanetan sartzen dira.

Eskolak kokatzen diren testuinguruak eta beren erabiltzaileen beharrek eragin handia izaten dute kalitate adierazleak zehazterakoan. Pariseko maila altuko ikastetxe bateko ikasleen beharrak, ziur aski, bere auzo marjinaletako ikasleen premiekiko oso desberdinak izango dira. Kalitate kontzeptua “erabiltzaile-bezeroaren ikusmiren asebetetzea” bezala definitzen bada, ageriko da kontestu, maila sozial, ideologia, herri, nazio eta estatu desberdinetako familia eta ikasleen beharrak nekez izango dira erabat berdinak. Ziur aski, izango dira adierazle berdintsuak, baina beste aldagai batzuk talde eta gizarte desberdinen berezitasunetan eragingo dute.



Beraz, bidezkoa eta zuhurra dirudi adierazle zerrenda bat azaltzea, zeintzuk kontzeptu honi buruz orientabideak emango dituzten, beti ere aurreko baldintza onartuz (kontestualizatutako adierazleak).”Irakaskuntza ona”, “eraginkortasuna”, “bikaintasuna” eta “hezkuntzaren kalitatearen” ideia generikoa, gure testuinguruan, ondorengo aldagai hauetako batzuen arabera defini daiteke.

HEZKUNTZAREN KALITATEAREN EBALUAKETARAKO ADIERAZLE ARRUNTENAK	
<p>•Gelaren kudeaketa</p> <ul style="list-style-type: none"> -Ikasleen interesetara egokitzea. -Ikasketa helburuak. -Edukien arteko oreka. -Edukien sekuentziak. -Edukien arteko lotura.Diziplinartekotasuna. -Lan metodologia. -Ikasketa ariketen egokitzapena. -Saio formatiboen probetxamendua. -Gelako denboraren kudeaketa. -Askotariko materialen erabilpena. -Teoria eta praktikaren osagarritasuna. -Ikasleen ikasketa erritmoen egokitzapena. -Irakasleen arteko koordinazioaren hobekuntza. -Ikasketa-irakaskuntza estrategia aniztasuna. -Komunikazioa gelan. -Ikasleen motibazioa. -Gelan parte hartzearen fenomeno. -Ikasleen tutoretza eta orientazioa. -Bere ikasketaren pertzepzio baikorra. -Ikasleen asebetetzea irakaslearekiko. -Ikasleen asebetetzea ikasgaiarekiko. <p>•Ikastetxearen antolakuntza orokorra</p> <ul style="list-style-type: none"> -Ikastetxeari egokitutako eta eskola kidegoak adostutako organigrama. -Erakundearen tamaina ertaina (500-600 ikasle). -Guraso-irakasle-ikasleek partekatutako agintea. -Irakasle eta ikasle berrientzat aholkularitza eta laguntza. -Nahi den edo egokia den profesionalen hautaketa. -Ikastetxearen filosofia bereganatzea. -Profesionalen lanaren aintzatespena eta balorazioa. <p>•Ikastetxearen zuzendaritza</p> <ul style="list-style-type: none"> -Zuzendariaren inplikazioa arlo pedagogikoan. -Zuzendariaren lidergoa ikastetxea hobetu eta berritzeko. -Ikastetxearen eta zuzendaritza taldearen autonomia erakundearen arazoak bideratzeko. -Zuzendaritzaren sentiberatasuna gurasoen nahi eta aspirazioenganako. -Irakasleak engaiatzeko gaitasuna. -Erakunde kideak egituratu, antolatu eta integratzeko gaitasuna. -Eskolako jardueri buruzko gainbegiratze eta ebaluazioa orokorra. -Etorkizun-sena. -Eskola komunitateari komunikatu eta informazioa zabaltzea. -Alderdi curricularrei emandako denbora. -Antolakuntza alderdiei emandako denbora. <p>•Ikastetxearen azpiegitura</p> <ul style="list-style-type: none"> -Ikastetxeko espazioen erabilpena eta asebetetzea. -Baliabide didaktikoen hornikuntza eta berrikuntza (laborategiak, liburutegiak, IKTak...). 	<p>•Hezkuntza komunitatea eta inguruarekiko harremanak</p> <ul style="list-style-type: none"> -Auzoaren maila soziokultural eta sozioekonomikoa, ikasleak zein sektoretatik datozen. -Gurasoen konpromisoa hezkuntzarekiko. -Alderdi sozialen engaiamendua ikastetxearekin. -Hezkuntza Administrazioaren edo hezkuntza taldeen laguntza. -Ikastetxean auzoa, gizartea eta abarren arazoetan eragiten duten programak txartatzea. -Ikastetxean daukan komunitate sentimendua. -Eskola-familia kooperazioa. -Gurasoen engaiamendua ikastetxearen funtzionamenduan. -Komunitate bereko kide izatearen sentimendua. -Eskola komunitateak hainbat helburu eta baloreak bereganatzea. -Gurasoei beren seme-alabak daraman garapena eta emaitzei buruz ematen zaien informazioa. -Gurasoen eskariak zaintzea. -Inguruan, auzoan, hirian, etab. dauden hezkuntza eta kultur zerbitzuekin kolaborazio harremanak. -Ikastetxeko gurasoen babesa irakasle eta beren lan ildo zehatzei buruzkoa. <p>•Erakundearen helburuak</p> <ul style="list-style-type: none"> -Irakasleen eta guraso laguntzaileen lanerako orientazioa. -Ikastetxeko familien beharreganako orientazioa. -Tokiko komunitatearenganako irekitasuna eta orientazioa. -Ikastetxeak (hezkuntza komunitatea) adostu eta ezagutzen dituen erakunde helburuak. -Arazoen ebazpenerako orientazioa. -Erabiltzaile-bezeroarenganako orientazioa. <p>•Ikasleekiko</p> <ul style="list-style-type: none"> -Ikasleen engaiamendua ikastetxean. -Ikasleek egiten duten lan onaren aintzatespena. -Ikasleen lanaren kontrola eta gainbegiratzea edo etengabeko ebaluazioa. -Ikasleen identifikazioa ikastetxearen filosofiarekin. -Ikaslearen autokontzeptu-autoestimu pertsonala. -Jasotzen duten instrukzio denbora kopurua. -Irakasle/ikasle ratioa. -Elkarbizitza jardueren sustapena. -Ikasle mota heterogeneoaren taldekatzea. -Formakuntzarenganako interesa. -Ikasleenganako bakarkako arreta. -Lortutako emaitza akademikoak. <p>•Denboraren erabilpena</p> <ul style="list-style-type: none"> -Ikasleen inplikazioa ikastetxeko ekintza eta arduretan. -Etxerako lanen bidalketa eta egite maila. -Denboraren probetxamendua gelan eta ikastetxean. -Ikasketarako denboraren erabilgarritasun maximoa. -Berrikuntza eta hobekuntza erabiltzen de denbora



<ul style="list-style-type: none">-Tokiko komunitateak, auzoak, hiriko taldeek erabil dezaten eraikina irekitzea. <p>▪Eskola giroa</p> <ul style="list-style-type: none">-Elkarbizitza jarduenen sustapena eta ebaluazioa.-Irakasle, guraso eta ikasleen arteko kolaborazioa. <p>▪Berrikuntza</p> <ul style="list-style-type: none">-Denbora eta baliabide handien erabilpena ikastetxearen ebaluazio eta berrikuntzan.-Benchmarking-en praktikak ikastetxearen aldetik.-Profesionalen irekitasuna hezkuntza aldatetarako.-Gurasoen irekitasuna hezkuntza aldatetarako.	<p>zabala.</p> <ul style="list-style-type: none">-Irakasle eta ikasleen lan denboraren planifikazio sistematikoa. <p>▪Zerbitzu osagarriak</p> <ul style="list-style-type: none">-Laguntza zerbitzu osagarriak (jantokiak, psikopedagogi taldeak, haurtzaindegia, garraioa, guraso eskola...).-Beste kanpoko hezkuntza zerbitzuekin harremanak (talde psikopedagogikoak, akademiak, minusbaliatuentzako zentroak, COP-PAT/Berritzeguneak...). <p>▪Talde lana</p> <ul style="list-style-type: none">-Elkar-laguntza eta kolaborazioa, talde kultura...
---	---

Hezkuntzaren kalitatearen aldagai batzuk

Aldagai hauen identifikazioak, definizioak eta ebaluazioak ikastetxeen egoera, beren ahulezia eta sendotasun eta abarrei buruzko informazioa eman dezake.

Baina hezkuntzaren kalitatean alderdi eta irakurketa gehiago dauzka. Entrepresa munduan sortuta eta garatutako planteamendu hauen interpretazioa marko, ikuspegi eta ideologia desberdinetatik egin daiteke. Hurrengo atalean azaleko hurbilketa bat egingo diogu gai honi.

8.3.-Hezkuntzaren kalitatea eta gizarte ideologiak

“Hezkuntzaren kalitatea” kontzeptua ez da termino neutroa. Ideologia politiko eta sozialei loturik dago. Postulatu pedagogikoek lotura estuak dituzte balioekin, sinesmenekin eta pentsamoldeekin. A. Marchesi eta E. Martín (1998:34) egileen arabera, hezkuntzaren eginkizunei eta gizartearekin, oro har, dituen harremanei buruzko ikuskera jakin bat sustatzen dituzten sinesmenen eta balioen multzoari dagokio ideologia hezkuntzan. Haien aburuz, bi ideologia nagusi dago: kontserbadorea eta pluralista-soziala. Eskuindarrek eta ezkertiarrek iritzi desberdina dute, sarritan, hezkuntzan “izarra” den “hezkuntzaren kalitatea” kontzeptua dela medio.

“Postulatu kontserbadoreek” hezkuntza sistemaren funtzionamendua eta merkatuaren arauak parekatzen dituzte. “Hezkuntza zerbitzua” gurasoei, bezero izan daitezkeenei... saldu behar zaien produktua da.



Haiei (gurasoak, ikasleak...) diren ikastetxeen “eskaintzak” jakinarazi behar zaizkie, haien helburuak ondoena betetzen dituen aukera har dezaten. Ideologia horrek merkataritzako printzipioa aldezten du; horren arabera, “hezkuntza zerbitzua”, hain zuzen, “produktu” bihurtzen da, eta hura “saldu” egin behar zaie “kontsumitzaileei” Hau da, gurasoek gehien gogobetetzen dituen ikastetxea hautatzen dute, beren ahalbideekin bat, betiere. Ideologia horrek eskolen arteko lehia bultzatzen du, emaitza akademikoetan oinarrituriko erakunde irudia sustatzen du, eta ikastetxea hautatzeko askatasunaren, hezkuntza sistema desarautzearen eta aginte publikoaren esku-hartzea ahalik eta txikiena izatearen aldekoa da. Bezeroek arautzen dute hezkuntzaren eskaintza. Ideologia kontserbadoreak, era berean, eraginkortasuna eta efikazia bultzatzen ditu (“hezkuntza produktuak” kostu txikiagoan) ikastetxeetan, emaitza akademikoak eta ikastetxeak emaitzen arabera sailkatzea, hots, rankingak egitea sustatzen du, baina, neurri batean, alde batera uzten ditu aukera berdintasuna, dibertsitatea eta hain dohaturik ez dauden ikasleak (ahalmen urrikoak, baztertuak...) integratzea.

<u>Konprentsibitatearen balioak</u>	Merkatuaren balioak
Banakoan (ikastetxeak zein ikasleak) beharretan arreta jartzea.	Banakoan (ikastetxeak zein ikasleak) emaitzetan arreta jartzea.
Komunitatean integratzean arreta jartzea (ikasgela mistoak, ikasleak bereizketarik gabe onartzea).	Bereizketan edo hierarkian arreta jartzea (kokatzea, sailkatzea, aukeratzea...).
Baliabideak gehien behar diren tokian jartzeko enfasia.	Baliabideak gaitasun handienekoen logika baliatuz kokatzea.
Ikastetxe eta ikasleen arteko lankidetzeta.	Ikastetxeen eta ikasleen arteko lehia.
Balioztapen zabala, ikasleen askotariko ezaugarrietan oinarritua.	Balioztapen murriztua, emaitzak lortzen lagungarri diren gauzetan oinarritua.
Haur guztientzako hezkuntza berdintasunean gerta dadin balioestea.	Hezkuntza kostuen eta errendimenduen arabera balioestea.

Irud. Konprentsibitatearen eta merkatuaren balioak (Ball, Gimeno, 1998:317-n).





“Ideologia pluralista-soziala”k hezkuntza zerbitzu publikoa izan behar duela sustatzen du, hau da, hiritar guztiei bermatu behar zaien onura bat. Hezkuntzan merkatuaren arauak ezartzea errefusatzeko du, guraso dirudunenek aukera gehiago dituztelako seme-alabak balizko irudi oneneko ikastetxeetan matrikulatzeko.

Ikasleak balioztatzean, haien gizarte jatorria kontuan hartu behar da. Ikasle guztiek ez dute abiapuntu bera, hau da, ez dituzte abantaila berberak hasiera batean. Bistan denez, emaitza akademikoak alderatzea, aberatsen eta pobreen abiapuntuetan diren defizitak aintzat hartu gabe, bidegabea eta makurra da. Errendimendu akademikoaren mailak orekatzeko, ideologia sozialaren proposamena da desberdintasunak konpentsatzea, dibertsitatean arreta jartzea, aukera berdintasuna, zuzentasuna eta gizartean babes gutxien duten klaseei (baztertuak, ahalmen urrikoak, zokoratuak...) laguntzea. Azken horiek ere kalitatezko hezkuntza izateko eskubidea dute.

Ideologia horrek honako hauek aldeztu ditu: ikastetxeen autonomia, proiektuak zein hezkuntzazko eskaintza askotarikoa izatea, gurasoen eskola aukeratzeko eskubidea, eta hainbat balio sustatzea, hala nola kalitatea, berdintasuna, dibertsitatea errespetatzea eta askatasuna. Hona hemen haren postulatu pedagogikoek bultzatzen dituzten planteamenduak:

- Deszentralizazio administratiboa: eskumen zenbait toki agintarien eta ikastetxeen beren esku uztea
- Ikastetxeen autonomia: hezkuntza komunitatearen ardura handiagoa hezkuntzazko proiektuak taxutzean eta erabakiak hartzea.
- Irakasleen parte-hartzea eta lanbide garapena: profesionalak motibatuta eta gogobeteta egon daitezen sustatzea.
- Ikastetxea balioztatzea: kanpoko, barneko balioztatpena zein balioztapen mistoa.



-Hezkuntzazko behar bereziak dituzten ikasleak integratzea: urritasun fisikoa, psikikoa edo zentzumenezkoa dituztenak, pobreak, baztertuak, eta abar.

-Ikastetxea aukeratzea: hezkuntzazko eskaintza askotarikoa izan dadin bultzatzea, zonaka, auzoka, barrutika edo sektoreka, gurasoek eskola aukeratu ahal izan dezaten (onartzeko arauak publiko eta komunak, eta bizilekurako hurbiltasunaren irizpidea erabiltzea eskariak eskolan diren postuak gainditzen duenean).

Ikus dezakegunez, hezkuntzaren kalitatearen kontzeptua ez da unibokoa. Kontzeptu honen esangura desberdin –kontrako zentzuan, maiz– ulertzen dute politikako eta gizarteko sektoreek.

Eskola publikoak honelako kalitatea bultzatu behar du: “ondare komuna, hezkuntzako Administrazioa herritar guztiei bermatzen diena, zuzentasunaren, elkartasunaren eta aberatsen eta pobreen arteko aukera berdintasunaren balioak sustatzen dituena”. Kalitatea horrela ulertzen bada, honako arlo hauek aintzat hartzen dituzten politika administratiboak egin behar dira:

-Hezkuntzaren unibertsaltasuna: eskolako adinean diren guztiek, salbuespenik gabe, postua izan behar dute eskolan.

-Doakotasuna maila eta gradu guztietan, Haur Hezkuntzan zein unibertsitate ikasketetan.

-Euskal Curriculumama era malguan antolatzea, oinarri konprentsiboa mantenduta, eta proposamenak dohatuagoak eta ez hain dohatuak (adimenaren, egoera fisiko edo sozialaren, eta abarren aldetik) direnen beharrekin bat dibertsifikatuta. Curriculumaren enbor komunak Euskal Herriko herritarrari kultura oinarri homogenea bermatu beharko dio, gizarte kohesioaren zutabe nagusi gisa.

-Hezkuntza komunitateko eragileek (aitak, amak, irakasleak, ikasleak...) eta gizarteko erakundeek ikastetxearen kudeaketan parte hartzea. Hau



da, aldatzea eta hobetzea bere gain hartu duen parte-hartzezko eskola bat bultzatzea.

-Laikotasuna: ezein erlijioaren dogmaren mende ez egotea. Hezkuntza komunitateak adosturiko balio etikoekin bat lantzen da moralitasuna.

-Mota guztietako jatorrizko desberdintasunak konpentsatzea. Eskolaren esku-hartze konpentsatzailea gabe, eskola gizarteko desberdintasunak errepikatzen edo handitzen dituen tresna bihurtzen da. “Tratu berdintasuna bermatzea ez da denak berdin tratatzea, baizik eta bakoitzari behar duen tratua ematea, denek, beren gaitasunekin bat, eskolatik etekinik handiena atera ahal izan dezaten, eta, bederen, herritar aktibo gisa gizarteratzeko gutxienekoa” (Gómez, L., Gimeno eta Carbonell, 2003:17-n).

Ezbairik gabe, kalitatearen paradigmak baditu bere alde onak eta berrikuntzak. Baina, bistan denez, eredu hori ezin da itsuan hartu. Gai horren inguruan hartzen diren erabakiek badituzte ondorio etiko, ideologiko eta sozialak. Horregatik, era kritikoan aztertu behar dira diskurtso eta paradigma horiek gizarteko maila guztietan dituzten eraginak.